

2022ko Batzar Nagusia

BATZAR NAGUSIAREN AKTA

Data: 2022-06-18

Lekua: Girona (UdGren Parke Teknologikoa, Pic de Peguera 15, Girona). Bazkide guztien parte-hartze handiagoa sustatzeko helburuarekin, egoitza sozialetik urrun daudenak barne hartuta, aukera eman zen batzarra online ere jarraitu ahal izateko, Internetera konektatutako edozein gailutik eta www.somenergia.coop webgune korporatiboaren bidez, hori guztia Som Energia, SCCLren Estatutuen arabera. Bazkide guztiek zeukaten gai-zerrendarekin lotutako dokumentazio guztia eta posta elektronikoz bidali zitzairen. Horrez gain, www.somenergia.coop webgune korporatiboan zegoen.

Hasiera ordua: 10:00 bigarren deialdian.

Amaiera ordua: 14:00

Parte-hartzaileen zerrenda: 461 bazkide. Ikusi parte-hartzaileen zerrenda eranskinean.

Gai-zerrenda:

1. Aktaren kontu-hartzaileen hautaketa
2. Ongietorria
3. 2021eko memoria sozial eta ekonomikoa
4. 2021eko urteko kontuak
5. Kontu-hartzailetzaren txostena
6. 2021eko soberakin kooperatiboaren aplikazioa
7. Orain arte onartutako mozioen segimendua
8. 2022ko Batzar Nagusiko mozioak
 - 8.1. Mozioa 2022ko Batzar Orokorra Autokontsumo-soberakinak
 - 8.2. Mozioa 2022ko Batzar Orokorra Tarifa soziala
 - 8.3. Mozioa 2022ko Batzar Orokorra Kanpoko sareko autoekoizpen partekatua
9. Som Energian hizkuntza-aniztasuna kudeatzeko esparru-dokumentua
10. Parte-hartzearen diagnosiaren itzulketa
11. 2021eko Ekintza-planaren itzulketa
12. Kapital sozialari egindako borondatezko ekarpenen urteko interes-tasa

- 13.** Elektrizitate tarifak 2021 - 2022 Merkatu librea eta Generation kWh
- 14.** Kapital sozialari egindako jaulkipenen berrespena
- 15.** Estatutuen aldaketak.
 - 15.1.** Estatutuen aldaketak. Webgune korporatiboaren garapena (4., 10., 38. eta 55. artikulua eta 4. xedapen gehigarria)
 - 15.2.** Estatutuen aldaketak. Araudirako egokitzapena (19., 27., 29. eta 32. artikulua)
 - 15.3.** Estatutuen aldaketak. Xede soziala (2. artikulua)
 - 15.4.** Estatutuen aldaketak. Ondasunen erkidegoak bazkide gisa (5. artikulua)
 - 15.5.** Estatutuen aldaketak. Errektore Kontseiluaren onarpen-akordioak (23., 36. eta 44. artikulua)
 - 15.6.** Estatutuen aldaketak. Barne-araubidearen Arautegia gehiengo sinplez onestea (40. artikulua)
 - 15.7.** Estatutuen aldaketak. Errektore Kontseiluko kideak berritzea (45. artikulua)
 - 15.8.** Estatutuen aldaketak. Bazkideen alten eta bajeen prozedura (13. artikulua)
- 16.** Errektore Kontseiluko karguak berritzea
 - 16.1.** Errektore Kontseiluko karguak berritzea. Albert Clusellaren berrespena
 - 16.2.** Errektore Kontseiluko karguak berritzea. Hautagaitzak aurkezteko jarraibideak
- 17.** 2022ko Ekintza-planaren Aurkezpena
- 18.** 2022ko Aurrekontuaren onespina
- 19.** Errektore Kontseilua ahalduztzea hartutako erabakiak betearazi eta erregistratzeko
- 20.** Agurra

1. Aktaren kontu-hartzaileen hautaketa

Presidenteak bi boluntario eskatzen ditu batzarraren aktaren kontu-hartzaile izateko. Bazkide hauek hautatzen dira: Salomé López Ramos eta Josep Frigola Rosó.

2. Ongietorria

2022ko Batzar Nagusiko presidentea da Jaume Josa jauna; batzarra inauguratutzat ematen du eta ongietorria ematen die bazkide guztiei. Borja Barredo da batzarreko idazkaria.

Hasteko, presidenteak gogorarazten du batzarra une paregabea dela; izan ere, kooperatibaren erabaki garrantzitsuak demokratikoki hartzeko espazioa da, zehazki, irizpide honen pean: "bazkide bat, bozka bat". Batzarrak aukera ematen du informazioa jasotzeko, bozka kontzientea izateko, baina, horrez gain, aukera ematen du Errektore Kontseiluak aurreko urtean egindakoaren gaineko kontu-ematea egiteko, hurrengo urterako aurreikuspenak azaltzeaz gain.

Jakinarazten du, aurtun, parte-hartzaile guztiek bozkatuko dutela telematikoki. Gironan dauden pertsonen bozkatzeko espazio bat izango dute kanpoan eta, beharrezkoa izatekotan, gure kideek lagunduko diete bozkatzen. Horrez gain, gogorarazten du, etxetik dauden pertsonentzat, aldi bereko interpretazio zerbitzua dagoela Estatuko lau hizkuntzetara: katalana, gaztelania, euskara eta galegoa. Horrenbestez, edozein momentutan, batzarra nahiago duten hizkuntzan jarrai dezakete eta, aldi berean, kooperatibaren hizkuntza-politikarekin bat eginez, hitz egiten duten pertsonen erosoago sentitzen diren hizkuntzan hitz egin dezakete.

Aurrekoaz gain, jakinarazten du puntu lila bat kokatu dela, genero-ikuspegiarekin lotutako edozein abusu salatu ahal izateko. Puntu lila horiek, babeserako eta prebentziorako elementu bat izateaz gain, gure posizionamendua eta konpromisoa ikusarazteko elementua dira. Beraz, baten bat deseroso sentitzen bada sexu-arrazoiengatik edo sexu-jazarpenagatik, harremanetan jarri beharko da lila koloreko txapa daraman norbaitekin. Helburua da ekintza matxista edo patriarkalengandik babestea, baita jarrera etorkorregandik ere.

Presidenteak jardunaldiaren ordutegiak azaltzen ditu.

Presidenteak idatziz eskatutako bozka-ordezkaritzarako eskaera guztiak onartzen ditu.

Bazkidearen izena	Ordezkaria
Roser Tosas Hernandez	Joan Rubio Montells
Ferran Mozas i Banzo	Caterina Alsina Parnau
Anna Vicente Farran	Enrique José Elejalde Martínez de Pancorbo
Carles Cuadern Codina	Quim Ruiz Querol
Francesc Agullo i Torres	Jaume Aliaga
Olga Bas Lay	Albert Cugat Pedrerol
Tania Ribes Parera	Sebastia Ribes garolera
Glòria Gratacòs Cases	Mar Clemente Gimeno
Jose Luis Fernandez Reyes	Raul Fernandez Coronil
Fernando cordero muñoz	Macarena Luque
María Dolores Domínguez Malmagro	Cristina Arcos Fernández
José Manuel Betanzos Martin	Pilar Herrera Martínez
Germán Encina Pascual	Juan José Estévez Gil de San Vicente
Lorena Torró i Garrido	Salomé López i Ramos
Antonio Michelena	Carme Sala
Rosario (Charo) Baquero Mesa	Amalia Suárez Cortés
Ángel Sáez Ramírez	Rosario Alcantarilla Ramos

Irene Machucak hartzen du hitza laguntzen diguten tokiko enpresa eta kooperatiba guztiei eskerrak emateko: MultiSignesi zeinu-hizkuntza eskaintzeko laguntzagatik; Claraboiari euskarri digitalagatik; Konexionari dokumentu-euskarriagatik eta Olistisi itzulpen- eta interpretazio-lanengatik. Eskerrik asko egun honetaz elkarrekin gozatzeko egoitzak antolatu dituzten tokiko talde guztiei. Horrez gain, eskerrak ematen dizkie talde teknikoari, topaketa ahalbidetu duelako, Errektore Kontseiluko bere kideei eta gaur bertaratutako eta konektatutako bazkide guztiei.

Irene Machucak adierazten du bozketen panela badagoela irekita eta 13:15 arte bozka daitekeela. Halaber, azaltzen du batzarraren webgunean jarraibide guztiak aurki daitezkeela eta Parteciparen bidez edozein zalantza helaraz daitekeela, zehazki, batzarrean argitaratutako gai desberdinen iruzkinen atalean. Zalantza guztiak argitzen saiatuko da.

3. Lotutako dokumentazioa

Bazkideen eskura jarritako dokumentazio guztia dago eskuragarri webgunean:
<https://asamblea2022.somenergia.coop/>

4. Memoria sozial eta ekonomikoa

Irene Machucak azaltzen du informazio-puntu hau. 2021ean, 9.300 bazkide berri sartu ziren kooperatiban. 2021eko amaieran, 77.500 pertsona baino gehiago ginen. Horrez gain, 794k baja hartu dute. Kooperatibista horietatik, 73.000 partikularrak dira, 2.300 enpresak, 613 elkarteak eta fundazioak, 340 kooperatibak, 120 administrazio publikoak eta 1.000 bestelako kooperatibistak. Guztira, 2021eko amaieran, 77.528 bazkide ginen.

Bizitza kooperatiboaren eremuan, prestakuntza berriak abiarazi ditugu Herri Ikasgelan: kooperatibismoari buruzko prestakuntzak; Kooperatibaren Gobernu Organoen bigarren edizioa eta kontsumo kritikoari buruzko prestakuntza. Horrez gain, *Som Energiaren Estilo-eskuliburua* argitaratu dugu; ospatu dugu Som Energiaren eskolaren hamargarren edizioa eta, urrian, kapital sozialerako ekarpenak ireki genituen finantza-egoerari aurre egiteko eta diru-zaintza indartzeko, merkatu elektrikoaren zailtasunak gainditu ahal izateko. Lehenbiziko astean, 5 milioi euro lortu ziren eta, hirugarren asterako, bagenituen 10 milioi. Gaur egun, dagoeneko lortu ditugu lortu nahi genituen 15 milioiak. Era berean, Irene Machucak azpimarratu du, azaroan, hasi ginela batzarrerako mozioak lantzen, zehazki, gaur bozkatuko direnak. Hizkuntza-aniztasuna bermatzeko tresnen ezarpenean lan egiten jarraitzen dugu, lau hizkuntza desberdinetan hitz egiteko eta horiek ulertzeko aukera eskainiz.

Komertzializazioaren eremuan, ia-ia 430.000 MWh-ko elektrizitate-bolumena merkaturatu dugu eta horrek esan nahi du 133.000 kontratari eman diegula zerbitzua. Kontratu horietatik, 120.500 partikularrenak dira, 5.700 enpresenak, 2.100 elkarte eta fundazioenak, 561 kooperatibenak, 550 administrazio publikoenak eta 3.800 beste batzuenak. Jarraitu dugu aholkuak ematen, gure instalazio elektrikoak babesteko eta ustekabeak eta dirua aurrezteko. Infoenergía zerbitzua eskaintzen jarraitzen dugu, bazkide guztiak informatuta egoteko eta bere kontsumoak optimizatu ahal izateko.

2021eko ekainean, 2.0TD tarifa berriak onartu ziren etxeko kontratueterako eta enpresa txikientzako, baita 15 kW baino gehiagoko edo tentsio altuko kontratueterako tarifa berriak ere: 3.0, 6.1, 6.2, 6.3 eta 6.4 Aurten, gure tarifak hiru aldiz eguneratu behar izan ditugu: apirilean, irailean eta azaroan.

Aurtengo gauzarik garrantzitsuenetarikoa da, ekainean, Espainiako Gobernuak onartu zuela BEZa % 21etik % 10era jaistea, kontsumitzaileen faktura murrizteko neurri gisa. Izan ere, hori

izan zen diru-zaintzan hainbeste tentsio eragin zuen arrazoietakoa bat; guk jarraitzen genuen elektrizitatea % 21ean erosten baina, gure fakturetan, % 10 baino ez genuen jasotzen. Horregatik eta merkatu elektrikoaren bestelako inguruabar batzuegatik, abenduan, neurri batzuk planteatu behar izan genituen, ez-ohiko egoera horri aurre egiteko, merkaturatutako energia-bolumena eusteko eta diru-sarrerak gastuekin orekatzeko. Zorionez, gaur egun, ematen du orekan gaudela jada eta, oraindik egin ez badugu, laster, berriro ere irekiko ditugu inprimakiak, argia Som Energiarekin kontratatzen jarraitu nahi duenak aukera izan dezan hori egiteko.

Produkzio berriztagarriari dagokionez, 2021ean, 18.823 MWh produzitu ditugu eta hori merkaturatzen dugun energiaren % 4,4 da. Aurrekoaz gain, nabarmendu behar da, abuztuan, funtzionamenduan jarri zela Granadako Llanilloseko planta fotovoltaikoa eta, abenduan, Murtziako Asomada Solar izeneko plantaren obra fotovoltaikoak bukatu genituela. Produkzio berriztagarriko plantak ditugu lurralde osoan banatuta eta, gehienak fotovoltaikoak izan arren, saiatzen gara beste teknologia batzuk lantzen, hidraulikoa, eolikoa eta biogasa bezalaxe. Zortzi planta ditugu Katalunian; bost Andaluzian; bat Murtzian; bat Valentzian; bi Gaztela-Mantxan eta bat Errioxan, oraindik ere izapidetzen ari dena.

Halaber, nabarmendu behar da, otsailean, lortu genuela sorkuntza berriztagarriko hiru proiektuetarako finantziaketa amaitzea, Generation kWh ereduaren proiektuaren bidez. Horretan, 4.615 pertsonen, guztira, 4.500.000 euro inbertitu dituzte 7, 8 GWh ekoizteko guztira. Eta, produkzio berriztagarriari dagokionez, ezin ditugu ahaztu tokiko taldeek sustatutako autoprodukzioaren erosketa kolektiboak. 2021ean, 46 erosketa kolektibo sustatu ditugu; horietan, 3.700 pertsona inskribatu dira, 1.800 instalazio abian jartzeko, 5,4 MWh-ko potentzia instalatuarekin eta 7,5 GWh-ko urteko produkzioarekin.

Erosketa kolektiboekin lotutako albiste guztiak kontsulta daitezke batzarraren webgunean deskarga daitekeen memoria sozial eta ekonomikoaren esteketan. Soilik nabarmendu behar da, erosketa kolektibo bakoitzeko, enpresa instalatzaileak konpromisoa hartzen duela beste bat doan instalatzeko. Gainera, aurrean, azpimarratu behar da Ekialdeko Andaluziako Sol-Surren erosketa kolektiboa, bere instalazioa dohaintzan eman diona AFAR Etxerik gabeko Pertsonen Harrera-zentroari.

Datu ekonomikoak errepikatuz, komertzializazio-jardueran 79 milioi euroko salmentak izan ditugu, ia-ia 1,3 milioiko emaitza ematen dutenak. Eta sorkuntza-jarduerari dagokionez, salmenta-bolumena 1,7 milioikoa da, 250.000 euroko emaitza baterako.

2021ean, 105 langile zeuden Som Energian. 49 emakume, 55 gizon eta pertsona ez-binario bat.

Gizarte-eraginari dagokionez, dohaintza boluntarioekin lortutako diru-sarrerak areagotu dira; zehazki, 2021ean, 700.000 euro inguruak izan dira. Era berean, honetan inbertitu dugu: otsailean ospatutako tokiko taldeen topaketa birtuala; Som Energiaren Eskolaren hamargarren edizioa; Infoenergiaren zerbitzua eta kooperatibaren sorkuntza-eremua

bultzatzen jarraitzea. Halaber, Germinador Social izenekoaren bosgarren edizioa ospatu dugu; horretan, 16 proiektuk hartu dute parte eta, horietatik, 6 saritu zituzten (bi energia-txirotasunaren eremuan). Nabarmendu behar dugu Andaluziako Energiaren Agentziako langileek sustatutakoa eta Autoconsumo Colectivo para Hogares Vulnerables y la Cañada Solar izenekoa (Light Humanityk sustatutakoa Madrilgo Cañada Realean). Komunitate energetikoen kategorian, lau proiektu saritu dira: La Fresnedakoa, Teruelen; Solidarizando el Solena; Valentziako Cabañaleko ikastetxe batean komunitate energetiko bat sortzeko proiektua; Manresako La Raval: Sostenim la vida! Kooperatiba eta Bartzelonako Viure de l'Aire proiektua.

Gizarte-eraginaren arloan ere bai, Senatura joan gara trantsizio energetikoaren inguruan mintzatzeko. Bat egin dugu «Una ley del clima insuficiente, una oportunidad perdida» izeneko jakinarazpenarekin. Beste kooperatiba batzuekin bat egin dugu (Som Connexió eta Som Mobilitatekin, adibidez) IT Ekosistema sortzeko; kooperatibismoko aliantza teknologiko bat da eta Kataluniako Generalitatearen Proyectos Singulares programari esker sortu ahal izan dugu.

Transicionenergetica.cat proiektuaren bigarren edizioa sustatu dugu, zeinean, aurtan, 20 enpresek parte hartu duten; guk emisioak murrizten lagundu diegu. Halaber, Europako Ekonomia Sozialaren lehenbiziko saria eman digute, Trantsizio Berdearen kategorian. Eta, gainera, Espainiako Batasun Fotovoltaikora atxiki gara.

Tokiko taldeei dagokienez, guztira ditugun 57 taldeetatik, 2021ean bi gehitu dira; bederatzi ausartu dira komunitate energetikoak sustatzera eta 40k erosketa kolektibo bat bultzatu dute 2021ean. Taldeak lurralde osotik daude banatuta, mapan ikus daitezkeen bezala.

Nabarmendu nahi dugu tokiko taldeen jarduera, gure kooperatibaren arima direlako, Som Energiaren proiektua sustatzeko lurralde osotik. Bere jarduerak askotarikoak dira: hedapen-hitzaldiak; bilerak; tokiko batzarren antolakuntza eta informazio-puntuak; hedabideen arreta; komunitate energetikoen eta erosketa kolektiboen bultzada; hitzarmenen ezarpena ekonomia sozialeko beste entitate batzuekin eta askoz gehiago. Gure tokiko taldeek suertatzen den edozein ekimen babesten dute.

Albiste nabarmen asko daude, batzarren webgunean ikus daitezkeenak, memoria sozial eta ekonomikoaren aurkezpena deskargatuz.

Tokiko taldeez gain, lurralde osotik banatutako bazkideen bidez egituratzen gara. Gaur, batzarra da kooperatibaren borondatearen organo gorena, bazkide guztiek osatzen dutena. Gogorarazten dugu hauxe dela jarraitzen den printzipioa: "Pertsona bat, bozka bat". Gaur da eskubide hori gauzatzeko eguna. Errektore Kontseilua Batzar Nagusiak hautatzen du eta bere lana da Som Energiaren misioa eta balioak zaintzea, baita batzarrean hartutako erabakiak burutzen direla bermatzea ere. Gogorazi behar da kargu boluntarioa dela eta ez dela ordaintzen. Eta Errektore Kontseiluak gerentzian jartzen duen konfiantzari esker, talde teknikoak kooperatibaren enpresa-jarduera burutzen du.

Amaitzeko, gogorarazten dugu gure ziklo demokratikoa, hau da, gure egutegi demokratikoa batzarrean hasten eta amaitzen dela. Bestela esanda, gaur hasi eta amaitzen da. Gutxi gorabehera, ikasturte batean banatzen da: iraila eta urria bitartean, eskola ospatzen dugu; azarotik urtarrilera, denbora daukagu batzarrera eraman nahi ditugun mozioak prestatu eta aurkezteko; otsailean, Tokiko Taldeen Topaketan elkartzen gara eta, azkenik, otsailetik maiatzera, aurkeztu diren mozioak lantzen ditugu, batzarrera eraman ahal izateko.

5. 2021eko urteko kontuak

Albert Banalek bozkatu beharreko puntu hau azaltzen du.

Aurkezpen honen helburua da ikustea Irenen azaldu duena nola islatzen den 2021erako urteko kontuetan, hau da, iazko abendura arte. Beste puntu batean, 2022ko aurrekontua aztertuko da, baita urte honetarako aurreikuspenak ere. Aurrekoaz gain, gogorarazi behar da, batzarrean, aurkezpenak bi motatako puntuak dituela: “v” dutenak bozkatu beharreko puntuak dira eta “i” dutenak informazioa emateko puntuak dira. Garrantzitsua da horiek bereiztea.

Hasten da 2021eko emaitza ekonomikoen inguruan hitz egiten.

Emaitza ekonomikoei dagokionez, 2021 urte ona izan da. Komertzializazioaren arloan, milioi bat euro baino gehiagoko etekina izan dugu. Sorkuntzaren arloan, gure plantek ondo funtzionatu dute. Halaber, aspaldi abiarazi genuen ordezkartzaren partean hazi gara.

Hala eta guztiz ere, 2021eko bigarren erdia eta 2022ko orain arteko hilabeteak zailak izan dira, kaudimenari dagokionez ez ezik, likideziari eta diru korronteari dagokionez ere bai. Eta, informazio-saio batzuetan azaldu dugun bezala, hori arrazoi desberdinengatik gertatu da. Irenen azaldu duen bezala, lehenik eta behin, kooperatibatik aurreratu behar izan dugun BEZaren diferentziala dago; horrek esan nahi du, 2021eko amaieran, Ogasunak 8 milioi euro zor zizkigula. Bigarrenik, banatzaileen fakturazioan atzerapenak egon dira irakurketak pasatzen ez zituztelako; beraz, ezin genuen fakturatu. Hirugarrenik, energiaren prezioak igo dira. Kooperatiba gisa, energia une bakoitzean erosten dugu, baina hilabete lehenago saldutako elektrizitatea kobratzen dugu. Hala, prezioak igotzen badira, alde handia sortzen da eta diru hori aurreratu beharra dago. Prezioen igoeraz gain, bermeak igo dira. Faktore horiengatik guztiengatik, merkaturatzaile gisa, diru asko aurreratu behar izan dugu. Baina ez guk bakarrik, baizik eta gainerako merkaturatzaileek ere bai. Eta oso urte zaila izan da.

Albert Banalek azpimarratu du neurri asko hartu izan direla, nagusiki, talde teknikoak hain urte konplexu honetan egindako lanari esker. Neurri horien artean, hauek aipatzen ditu: tarifen igoera; kapital sozialaren jaulkipena, zeinarekin 7.000 pertsona baino gehiagoren 15 milioi euro baino gehiago bildu ditugun, eta zorraren igoera bezalako beste ekintza batzuk.

Izan ere, Kataluniako Finantza Institutua bezalako finantza-entitateekin negoziatu ostean egin da hori, maileguak eta kreditu-polizak igotzeko.

Grafiko bat aurkezten da, zeinean ikusten den 2021ean egondako prezioen igoera. Elektrizitatearen prezioa ikus dezakegu hilabete desberdinetan eta igoera nabarmena egon dela islatzen da; hala ere, hori ez da guk ordaintzen dugun prezioa, Som Energian, berezko sorkuntza eta estaldurak ere baditugulako eta prezioaren balizko igoera horiek asetzen ditugulako. Eta berdez agertzen dena da kooperatiba gisa ordaindu dugun prezioa merkaturatutako energiaren truke; ikus daiteke igo dela prezio hori.

Galeren eta irabazien balantzeari dagokionez, ikus dezakegu salmentak % 10 baino gehiago igo direla. Energiaren hornikuntza salmentak baino gehiago igo da eta, horren ondorioz, komertzializazio-marjina 7,6 milioitik jaitsi da 6,3 milioira. Hori gorabehera, EBITDA bikoiztu da (amortizazio-zergen eta bestelako finantza-emaizta batzuen aurreko emaitza da). 2020ko 938.000 euroetatik 1.800.000 euroetara pasa gara 2021ean. Arrazoi desberdinengatik gertatu da hori, baina garrantzitsuenean zentratuko gara.

Lehenik eta behin, soldata-masa igo da, baina, gutxi gorabehera, kooperatibaren hazkunde-erritmora igo da, hau da, % 15. Hori hala izan da, batez ere, pertsona berriak kontratatu direlako.

Alde handia parte honetan oinarritzen da: “Jardueraren beste gastu batzuk”. 2020an, 3 milioi euro baino gehiago ziren eta, aurten, 800.000 baino ez dira. Xehetasun guztiak ikus daitezke webgunean eta, gainera, Errektore Kontseiluak eta talde teknikoak Batzar Nagusia Prestatzeko Espazioan egindako aurkezpenean laburtuta daude. Espazio hori batzarra prestatzeko espazioa da eta, bertan, xehetasun guztiak eta askoz denbora gehiagorekin azaltzen dugu kontuekin lotutako guztia. Besterik gabe, aipatu nahi dugu murrizketa handi hori egon dela legeriaren aldaketa zehatz batengatik; izan ere, horren ondorioz, orain, badakigu ez dugula jarduera ekonomikoaren gaineko zerga ordaindu beharko operatzen dugun udalerrri bakoitzean. Aitzitik, aurreko urteetan, 800.000 euro inguru gordetzen genituen kontzeptu horretarako, udalek partida hori eska zezaketelako. Hortaz, galera gisa sartzen genuen kontabilitatean. Hala eta guztiz ere, orain badakigu, urte honetatik aurrera, bakarra ordainduko dugula kooperatiba osoarentzat. Hortaz, ez dugu kontzeptu hori sartu. Baina, horrez gain, ez dugu gehiago gorde behar aurreko urteetan kontzeptu horren pean gordetako eta, beraz, irabazi bezala jasotzen dugu. Horregatik, hain zuzen ere, kontzeptu hori murriztu da. Berrito ere, horren ondorioz, beste gastu batzuen parte, non zergak sartuta dauden, horrela murriztu da eta, horrenbestez, aurreko urtearekin alderatuta, EBITDA igo da. Irenek azaldu duen bezala, azkenean, gure emaitza garbia, hau da, zergen ondorengoa (hemen akats bat dago, *zergen ondorengo emaitza* izan beharko litzatekeelako) 1,3 milioi eurokoa da.

EBITDAren terminoetan laburtuta, taulan eta grafikoan ikus dezakegu aurreko urtearekiko egon den igoera. Hemen, urte gehiago ikus ditzakegu eta, ikusten denez, EBITDA igo egin da. Dakizuen bezala, batzarraren agindua daukagu tarifak finkatzeko eta, Errektore Kontseilu

gisa, tarifak eguneratzeko, urtearen amaierara % 0,5 eta % 2 arteko gainerreserben EBITDA batekin heltzeko. 2020an, gutxi gorabehera, abaniko horren erdian egon ginen eta, 2021ean, apur bat gaintik egon gara. Zalantzarik gabe, merkatu elektrikoaren ziurgabetasunak eragin zuen hori baina, dakizuen bezala, ideia beti da tarifak mantentzea marjina horren inguruan edo barruan, hau da, % 0,5 eta % 2 artean. Azkenean, komertzializazio-partearen emaitza garbia 1,3 milioi euro ingurukoa da. Gero aztertuko dugun bezala, proposatzen dugu zenbateko hori kooperatibaren erreserbei inputatzea, hau da, kooperatibaren jarduerari inputatzea. Halaber, espero dugu sorkuntza-proiektu berrietara bideratu ahal izatea.

Kooperatibaren balantzeak 2020ko eta 2021eko azken egoera islatzen du. Ikusten dugu, 2020ko amaieratik 2021eko amaierara arte, asko igo dela. Hain zuzen ere, bizi izan dugun salbuespeneko unearekin lotutako arrazoi askorengatik. Aktiboen partean, aktibo korrontearen igoeretako bat gobernuak zor ziguna zen, Ogasunarekiko zorraz gain, 2022an kobratu duguna. Horrez gain, bermeen partea dugu eta, lehen azaldu dugun bezala, hori ere igo da. Ondarea ere asko hazi da, neurri batean ekarpen boluntarioengatik, hau da, 2021eko amaieran egindako kapital sozialeko jaulkipenari esker. Horrez gain, pasiboen partea hazi da, 2021eko amaierako maileguen eta polizen igoeragatik. Horrek guztiak azaltzen du balantzearen egoera.

Orain arte, soilik hitz egin dugu komertzializazioaz, hori delako kooperatibaren barruan pertsona gehien okupatzen dituen, baita etekin eta jarduera ekonomiko gehiago sortzen dituen ere. Hala eta guztiz ere, sorkuntzaren inguruan ere hitz egin behar da. Hemen, energia sortzen ari diren eta garatzen ari diren planten zerrenda ikus dezakegu; horiek guztiak edo ia-ia guztiak dira % 100ean Som Energiaren partaidetzakoak.

Ordezkaritzari erreparatuz, Irenak dagoeneko aipatu du gure planten salmenten diru-sarrerak eta produkzioa hazi direla eta, batez ere, elektrizitatearen prezioa igo dela. Hemen, planta bakoitzaren emaitza ikus daiteke banakatuta eta, amaieran, emaitza ekonomikoak agertzen dira. Gainera, produkzioarekin lotutako emaitza bat dago. Produkzio-helburuari dagokionez, guztiak egon dira % 85 edo % 100ean eta batzuk % 100etik harago egon dira ere bai, Llanilloseko planta izan ezik, funtzionamenduan jarritako azkena delako. Espero genuena baino beranduago egin zuen eta, horregatik, helburutik apur bat beherago geratu egin gara. Amaieran, planta horien guztien sorkuntzaren emaitza agertzen da eta emaitza hori, batuta, positiboa da. Ia-ia 300.000 euroko saldo positiboa dugu.

Ikusten dugu ordezkartzaren parte oso azkar hazten ari dela. Gure plantak ez ezik, beste batzuk ere ordezkatzaren ditugu merkatuan. 2020an, 18 planta ordezkatzaren genituen; 2021eko amaieran, 39 ziren eta, orain, ia-ia 70. Hau da, gorantz doan jarduera bat da. Ez hainbeste lortutako etekinei dagokionez, baizik eta eragiten duen murrizketari dagokionez ere, merkatuan bermeak uztearen terminoetan. Aipatutako hiru parteen jarduera osoaren emaitza konbinatua ikus daiteke. Eta, amaieran, kooperatibaren jarduera guztien guztirako emaitza garbi bateratua, 1.600.000 euro ingurukoa.

6. Kontu-hartzailetzaren txostena

Albert Banalek informazioa emateko besterik ez den puntu hau azaltzen du.

Lehenik eta behin, eskerrak ematen dizkie kontu-hartzaileei, bere lanagatik eta aurten eskaini duten laguntzagatik txostena egiteko; zehazki, bazkide guztiek eskura dezakete txostena batzarraren webgunean. Jarduera ekonomikoaren laburpena egiten dute, egitaterik nabarmenenak azpimarratuz, eta zenbait gomendio ematen dizkiote kooperatibari, bai gomendio estrategikoak, bai teknikoak. Aipatzen dute beharrezkoa dela finantza-irrotasuna lortzea eta gu, Errektore Kontseilu gisa, ados gaude, krisialdi batetik gatozelako orain, baina gehiago egongo direlako. Eta aurten bizi izan dugun krisialdiaren gauzarik positiboenetariko bat izan da neurri asko pentsatu, frogatu edo, azkenean, hartu ditugula eta horrek lagundu digula hobeto prestatzen etorkizunean gerta daitekeenerako, ikuspegi teknikitik, hau da, informazioaren teknologien ikuspegitik eta komertzializazioaren ikuspegitik ez ezik, ikuspegi ekonomikitik ere bai.

Kontu-hartzailetzaren txostenaren xehetasunak kontsulta daitezke hor. Orokorrean, aipatzen da beharrezkoak direla sorkuntza- eta autokontsumo-proiektuak eta komunitate energetikoen proiektuak; halaber, elektrizitatearen salerosketa-kontratuen proiektuak garatu behar dira hirugarrenekin, baita tarifa indexatuekin eta produktoreak ordeztearekin lotutako proiektuak ere. Neurri horietako asko badaude martxan eta, Errektore Kontseilutik, erabat ados gaude horrekin. Azkenean, haiek urteko kontuak onestea proposatzen dute eta, dakizuen bezala, horiek bozkatu behar dira.

7. 2021eko soberakin kooperatiboaren aplikazioa

Albert Banalek bozkatu beharreko puntu hau azaltzen du.

Komertzializazio-partearen etekin garbia 1.300.000 euro ingurukoa izan da; hala, Errektore Kontseiluak proposatzen du diru hori osorik bideratzea Kooperatibaren Erreserba Funtsera. Erreserba Funtsearen parte bat derrigorrezkoa da baina, zerga-kontuengatik, beste parte bat banatuta dago kapitalizazio-erreserba honetan. Hala eta guztiz ere, proposatzen dugu gainerakoa, parte boluntarioa barne, kooperatibaren Erreserba Funtse honetara ere bideratzea. Bozkatu beharreko puntua da hau.

8. 2022ko Batzar Nagusiko mozioak

Borja Barredok hartzen du hitza aurkeztutako mozioak azaltzeko:

Azaltzen du, lehenik eta behin, orain arte batzar desberdinetan onartutako mozioen egoeraren berri emango duela eta, gero, 2022ko batzar honetan aurkeztutako mozioen inguruan hitz egingo duela, baita orain arte landutako hizkuntza-aniztasunaren esparruaren proposamenaren inguruan ere.

Onetsitako mozioei dagokienez, urte bereziki zaila izan da; izan ere, kooperatibaren ia-ia baliabide guztiak bideratu behar izan dira diru-zaintzara eta merkatu elektrikora. Eta horrek eragotzi digu, mozioekin lotutako gaietan, nahi genuen bezain beste aurreratzea.

Hizkuntza-aniztasunaren gaian lan egin da; hain zuzen ere, batzar honetan bozkatu beharreko puntu bat izango da eta jarraian azaldu egingo da. Halaber, Las Palmaseko taldearekin elkarlanean landu da hondamendi naturalekin lotutako mozioa; horretan, banatzaileak iraila eta abendua bitartean kooperatibako hamar pertsoneri igorritako fakturak ordaindu dira. Mozio hau lehenbiziko urrats bat da eta, ziur aski, jarraitu beharko dugu hori garatzen.

Dakigun bezala, 2019ko batzarra oso oparoa izan zen mozioei dagokienez. Soilik gelditzen gara abian daudenetan eta egikaritu diren horietan, aurreko batzarretan azaldu direnak, hizkuntza-aniztasunaren ingurukoa bezalaxe, 2019ko batzarreko puntuetako bat izan zena. Abian daudenei dagokienez, nabarmendu behar dira hondamendi naturalek eragindako pertsonentzako laguntzak. Gaur egun, mozio batzuk daude aztertzeke, zehazki, honen ingurukoak: emakida hidroelektrikoak; oligopolioarentzako emakiden berrikuntzak, aktibismo-lanari dagokionez; presen kudeaketa sartzea baliabide berriztagarrien helburuen artean eta hezkuntzako eta sustapen kooperatiborako funtsaren heren bat erreserbatzea trantsizio energetikoko tokiko ekimenak babesteko.

Horrez gain, oraindik ere, aztertu behar dira 2021eko batzarreko mozio batzuk, autoprodukzioaren *lobby* fiskalarekin lotutakoa eta fotovoltaiko flotarriaren mozioa, baita Som Energiaren talde teknikoa zentralizatzearen eragina aztertzekeko mozioa ere.

Batzar honetan bozkatzeko aurkezten diren mozioei erreparatuz, nabarmendu beharreko lehenbizikoa da honako hau: aztertzea zer egin daitekeen kooperatibaren kontratuen konpentsatu gabeko autokontsumo-soberakinekin. Gai jori Tokiko Taldeen Topaketan ere joratu zen. Proposatzen dena da konpentsatu gabeko autokontsumo-soberakin horiek kudeatzeko garapen-aukerak aztertzea. Era berean, mozio gisa proposatzen da, kooperatibaren eremuaren barruan, tarifa sozial bat garatzeko aukera aztertzea, bonu soziala ordeztzeko. Izan ere, dakigun bezala, araudiak ez digu uzten hori merkaturatzen. Beste mozio bat lotuta dago kanpo-sarean partekatutako autoprodukzio-garapenarekin, erdi-mailako tamainako proiektu gisa. Adibidez, horietako bat izan liteke kooperatiban orain arte burutu direnen bezalako sorkuntza-proiektu bat. Horrez gain, autoprodukzio-gaiak daude, funtsean, bakarkakoak direnak, nahiz eta gero eta autoprodukzio kolektibo gehiago egon. Aurtengo mozioei dagokienez, hori da garrantzitsua.

9. Som Energian hizkuntza-aniztasuna kudeatzeko esparru-dokumentua

Borja Barredok bozkatu beharreko puntu hau azaltzen du:

Bozketa-puntuetako baten barruan, kooperatiban hizkuntza-aniztasuna kudeatzeko esparrua dago eta, batzarraren dokumentazioan, horretarako esteka dago. Jakin badakigu gai garrantzitsua dela, bai Errektore Kontseiluarentzat, bai talde teknikoarentzat eta sozietate-oinarriarentzat. Hortaz, merezi du hori garatzeak. Bidea luzea izango den arren, batzar honetarako proposatzen dena hausnarketarako dokumentu sinple bat da, oinarritzat eta inspiraziotzat hartuko dena gaia garatzeko. Batzarraren aurretik ospatutako Tokiko Taldeen Topaketan eta Batzar Nagusia Prestatzeko Espazioan alderdi hori ere jorratu zen.

Esparrua ez da zerotik abiatzen. Hizkuntza-normalizazioari dagokionez, ziur aski, abiapuntuetako bat 2019ko mozioa izan zen. Kooperatibaren *Estilo-eskuliburuan* jasota dago eta Kode Etikoaren barruan dago, aniztasunari dagokionez, orokorrean, eta hizkuntza-aniztasunari dagokionez, bereziki.

Ideia da dokumentu labur eta sinple bat edukitzea, aniztasun hori garatzeko kooperatibaren eremu desberdinetan. Era berean, helburua da hori pertsona guztiak errespetatzen dituen komunikazio inklusibo baterako oinarria izatea. Batzuetan, ziur aski, *lingua* franka erabili izan dugu, hau da, eremuaren arabera pertsona gehienek hitz egiten zuten hizkuntza erabili izan dugu. Hala ere, hausnartu dugu eta ondorioztatu dugu, homogeneizazio-espazio horietan, ñabardurak galtzen direla eta gauza batzuk bidean geratzen direla. Hortaz, proposatzen dena da aniztasun hori garatzea, hizkuntzak gure eguneroko bizitzaren parte direlako, gure errealitatea osatzen dutelako, pertsonen arteko harremanetan sakontzen dutelako eta, gainera, pertsonen laguntzen dietelako kooperatibaren helburuekin identifikatzeko eta kooperatibaren barruan garatzeko. Ondo dakigu aniztasunak pertsonen elkar ulertzea sustatzen duela. Gainera, horrek guztiak laguntzen digu enpatia handiagotzen gure komunikazioetan, baita aniztasunaren sustapenean ere-

Inkesta bat egin zitzaizen bazkideei eta gehienek, zehazki, % 41ak hizkuntza-aniztasunaren alde egin zuen. Esparru horretan lan egin izan dugu aurretiazko espazioetan eta Tokiko Taldeen Topaketan eta webgunean dago eskuragarri, gerora garatze aldera. Era berean, kooperatibak oro har duen prestakuntza-ikuspegiarekin uztartu beharko da, baita Herri Ikasgela bezalako eremu zehatzagoetan ere. Halaber, guk defendatzen dugun gizarte-eraldaketaren barruan sartzen da.

Hori bada abiapuntu bat. Horrez gain, aurretiaz, kontsultak egin zitzaizkien entitateei eta gaian adituak direnei; izan ere, horiek kontuan hartu ditugu lantaldearen lana garatzean. Norbaitek ikusten badu entitatearen bat falta dela, Partecipan iradoki dezake, prozesu irekia delako. Ziur aski, mozioa onartzen bada eta esparrua ezartzea hautatzen bada, aniztasunaren gaia landu beharko da eremu desberdinetan; hala, garapenerako baliagarria

izan beharko da, adibidez, landuago ditugun espazioetan: Eskola, batzarrak eta Tokiko Taldeen Topaketa. Gainera, eremu desberdinak zehazteko metodologiak landu beharko dira, batzar hau bezalaxe, komunikazio sinkronoa dena. Aurrekoarekin batera, besteak beste, asinkronoa den idatzizko komunikaziorako espazioak ere landu beharko dira.

10. Parte-hartzearen diagnosiaren itzulketa

Paco Jofrak informazioa emateko besterik ez den puntu hau azaltzen du.

Azkenengo urtean, Altekioarekin landu izan dugu puntu hau, batez ere, bazkideen errealitatea ezagutzeko edo, hobeto esanda, hori balioztatzeko. Gutxi gorabehera ezagutzen ditugu gure bazkideak; badakigu nola egituratzen garen eta, azkenean, nahi duguna da hori balioztatzea, proposamen berriak sortzeko eta jakiteko zer nolako partaidetza dugun, baita horren kalitatea zein den eta nola handi dezakegun jakiteko ere.

Metodologia izan da Errektore Kontseiluaren eta talde teknikoaren artean antolatzea, Altekio kooperatibaren babesarekin. Horrez gain, bazkide guztiek, tokiko taldeek eta normalean gure espazio parte-hartzaileetan ez dauden beste pertsona batzuek parte hartu dute. Inkesta bat egin genien bazkide guztiei eta % 10eko parte-hartzea lortu genuen, 6.700 erantzunekin.

Baliozkotu edo aitortu duguna zerrendatu beharrean (apur bat negatiboa izango litzatekeelako), bazkideek egindako proposamenetan zentratu egingo gara. Motibazioak argiak dira: oligopolioarekin amaitzea eta berriztagarrietara eta kooperatibismora pasatzea. Hala ere, gabeziak ere aurkitzen ditugu, besteak beste, ikuspegi feminista edo kooperatiba inklusiboagoa izatearekin lotutako alderdia.

Egindako lehenbiziko proposamena izan da ikuspegi feminista txertatzea. Hori egiten da prestakuntza emanez kooperatibaren maila guztietan, zehazki, gai hauen inguruan: ekofeminismoa; zaintzak; maskulinitate berriak eta genero-rolak. Prestakuntza eskaintzen dugu, bideratuago dagoena bere profila jaitsi beharko luketen pertsonen. Horrez gain, prestakuntza ematen dugu kooperatiban lidergo berriak sortzeko eta tokiko talde horiek bere egituran berritzeak egitea nola lortu azaltzeko.

Bagenekien kooperatiban gazte gutxi zeudela eta, orain, alderdi hori baliozkotu ahal izan dugu: ikusi dugu, Som Energiaren balioen barruan, agian falta dela klima-ekintzaren inguruko parte bat. Gazteriaren artean, ikusten dugu jarrerak apur bat erreaktiboagoak direla (ekintza-erantzuna) eta, agian, gazteek uste dute trantsizio energetikoaren gaia epe luzerako kontu bat dela.

Halaber, kontuan hartu behar da, historikoki, desinformazio-kanpaina ugari egin direla, gaur egungo energia-eredu oligopolistatik. Funtsean, agian ez dakigu faktura bat irakurtzen eta

etengabe lan egin behar dugu egoera hori aldatzeko. Som Energiak paper giltzarria dauka honetan eta esfortzu asko bideratu nahi ditu horretara edo, gutxienez, proposamenak egin. Hain zuzen ere, prestakuntza eman nahi du eta baliteke energia-gida bat egitea bazkide guztiek izateko oinarritzko lexikoa, gure faktura ez ezik, eredu elektrikoa eta energetikoa ulertzeko ere bai.

Kooperatibaren barruan identifikatutako puntu apur bat ahulagoa da asko eta oso azkar hazi garela (80.000 bazkide gara jada); hortaz, baliteke bazkide batzuek erabat ez ulertzea eredu kooperatibista edo ekonomia sozialeko eredua edo erabat ados ez egotea horrekin. Hortaz, gehiago sakondu nahi dugu horretan.

Egiturari dagokionez, parte hartzeko askotariko espazioak ditugu, baina gabezia batzuk detektatu ditugu. Adibidez, pertsona bakoitzak bozka bat dauka eta, historikoki, pertsona hori, hau da, argiaren titularra familiako gizona izan da. Oztopo horri aurre egiteko, proposatzen dugu bazkidearen kontzeptua aldatzea, pertsona bakarreko mailatik pasatzeko bizikidetza-unitatera. Horrela, pertsona guztiek izango dute parte hartzeko aukera, ez hainbeste azken botoan, baizik eta kooperatibaren espazioetan, hau da, tokiko taldeetan edo bestelako espazioetan.

Horretatik harago, gazteriari dagokionez antzeman dugun eta baliozkotu dugun beste oztopoetako bat da kapital sozialeko derrigorrezko 100 euroko kuota. Horren aurka borrokatzeko, formatu desberdinak atera ziren: 100 euroko kuota horren balizko beherapena (gazteentzako ez ezik, prekaritate-egoeran dauden herritar guztientzat ere bai) edo ekarpena kuota desberdinetan egin ahal izatea, antzeko kooperatiba batzuek egiten duten bezala. Horrez gain, badakizue aldi baterako lantaldeak izan ditugula maiz. Hori indartu nahi da parte hartzeko espazioak direlako; agian horien konpromisoa ez da tokiko taldeena bezain handia baina, hori gorabehera, aukera eman dezakete iraganeko mozioekin lan egiteko, baita abian dauden mozioekin eta etorkizuneko mozioekin lan egiteko ere.

Tokiko taldeak dira kooperatibaren parte hartzeko organorik garrantzitsuena eta, horiei dagokienez, etengabeko prestakuntza gehiago eman behar da, taldeek detektatu dutenaren arabera. Horrez gain, tokiko taldeen artean trukatzeko jardunbide egokien gida bat behar da, ikusteko zerk funtzionatzen duen eta zerk ez eta nola zain daitezkeen hobeto espazio hauek, belaualdi-erlebo ona egon dadin.

Egituraren eta gobernantzaren eremuan, autoprodukzioaren parte nabarmentzen dugu, bazkideak oso inplikaturik daudelako. Zentzu horretan, adierazi nahi genuen, talde teknikitik, lagun daitekeela izapidetzeekin eta hobariekin sor daitezkeen administrazio-oztopoak gainditzeko eta tresnak eman dakizkiekeela tokiko taldeei, erosketa kolektiboko prozesuak errazte aldera. Bazkideek eskatzen duten bezala, jakina, sustatu behar ditugu komunitate energetikoak, errealitate bat izan daitezen, bai kooperatibaren barruan, bai tokiko taldeen barruan.

Prozesuei dagokienez, labur-labur, nabarmendu behar da agian harrera-prozesu bat falta zaigula kontratu batekin sartzen diren pertsona guztientzat. Pertsona horiek, gero, bazkide bihurtzen dira, baina baliteke ez ezagutzea parte har lezaketen beste eremu guztiak. Hortaz, lotura zuzenagoa edo indartua eskatzen da talde teknikoaren eta tokiko taldeen artean.

Komunikabideei dagokienez, asko ditugu eta askotarikoak dira; hortaz, bazkideei azaldu behar diegu zein bide erabiltzen ditugun. Telegram erabiltzen dugu etengabeko zaratarekin; agian, hori apur bat ordenatu eta sinplifikatu beharko genuke. Ondorioztatu da falta dela Participa eztabaida aktiboetarako erabiltzea, soilik informaziorako erabili beharrean.

Elkar-lankidetzari erreparatuz, nabarmendu nahiko genuke unibertsitate-batzordeak sortzeko proposamena, futbol-klubetan esaten den bezala, eskola egiteko. Hau da, modu bat aurkitu beharko litzakete prestakuntza eskaintzeko eta ekonomia sozial eta solidarioko bestelako kooperatiba eta entitate batzuekin elkarlanean aritzeko, Proyectos Singulares bezalaxe. Hala ere, kasu honetan, lotura are estuagoa eskatzen da.

Aniztasunari dagokionez, hau da, binarioak ez diren pertsonen eta emakumeen kopuruari dagokionez, kontuan hartu behar da gizarte heteropatriarkal batean bizi garela eta, merkatu elektrikoan, gainera, beti egon direla gizonezko gehiago. Horrenbestez, lagundu behar dugu Som Energian emakume gehiagok, binarioak ez diren pertsona gehiagok eta bestelako entitate gehiagok parte har dezatela lortzen. Som Energian, pertsona titularra baino ez dugu eta hobeto ezagutu nahi ditugu pertsona horiek, hau da, bazkide horiek, baita eskatzen dituzten komunikazio-kanpainak ere. Gainera, adiskidetzeari erraztu behar dugu. Zentzu horretan, erraztu behar da beste ataza batzuekin lotu ohi diren identitateek aktiboago parte har dezatela erabakiak hartzeko prozesuan. Era berean, gazteei dagokienez, sustatu behar da gazteak gehiago inplikatzea klima-aldaketarekin lotutako jardueretan.

11. 2021eko Ekintza-planaren itzulketak

Sara Gutiérrezrek informazioa emateko besterik ez den puntu hau azaltzen du:

2021ean, oraindik ere pairatzen genuen Covid-19aren eragina, bajekin, urrutiko lanarekin, tarifen aldaketa desberdinekin eta Albertek aipatu dituen banatzaileen kontuekin. Gainera, azkenengo batzarrean, antolakuntza-aldaketa bat abiarazi zen, aspaldi bilatzen genuen gerentzia-ereduan oinarritutakoa. Barne-berrantolaketako prozesu hau burutu da, komertzializazioari dagokionez, kanpoko egoera zaila izan delako. Gehien eragin diguna banatzaileen kudeaketa txarra izan da: fakturazioarekin izandako arazoak; irakurketen atzerapena; irakurketa okerrak... Horrek guztiak asko eragin dio taldeari. Gainera, kontratu askok eskatu dute potentzia handitzeko; hala, bidesariak aldatzen direnean (aurten, lau aldiz aldatu dira), lan gehiago egin behar da eta horrek gainkarga eta estresa eragin ditu taldearentzat.

Autonomia handiagoa lortu dugu merkatu elektrikoaren barruan. 2021ean, ordaingabeetarako barne-protokoloa argitzen amaitu genuen eta esan dezakegu, hori bete ez ezik, hobetu ere egin genuela, betiere kontuan hartuz zaugarritasun-egoeran edo energia-txirotasunean dauden pertsonak. Merkatu elektrikoaren barruan, elektrizitatearen salerosketa-kontratuak ditugu; saiatzen gara estrategia horretan aurrera egiten. Urtearen amaieran, prezioen igoera dela-eta, bazkideak ez ziren pertsonen kontratuak erregularizatu behar izan genituen. Gonbidatu genituen bazkide izatera eta, ezetz esatekotan, sorkuntzaren eremuko erreferentziazko merkaturatzailerara pasa genituen. Kuota horrek lagunduko digu gure zaugarritasuna murrizten dagoeneko ezagutzen dugun merkatu honen barruko prezioen igoeraren aurrean. Helburua da berezko produkzioa handitzea, hau da, kooperatibaren sorkuntza handitzea.

Urte zaila izan da, batez ere, Katalunian. Gune horretara soilik mugatzen ez garen arren, bertan dugu eskaririk handiena eta, horregatik, proiektuak indartu nahi genituen. Arauketa-aldaketak egon dira; espekulazio asko egon da konexio-puntuei dagokienez eta eragile berriak agertu dira, prozesua geldiarazi dutenak. Espekulazio handia egon da eta gizarte-eztabaida sortu da proiektu askoren aurka, mundu guztiak ez duelako berdin lan egiten.

2021eko erronkei dagokienez, parte estrategiko bati ekin genion Tandem kooperatibarekin (2022rako ere aipatuko duguna geroago). Autokontsumo-proba pilotu honetan aurreratzen ari gara, Gironako eta Mataróko bi proiektuekin, produkzioa lokalagoa izan dadin. Jarraitzen dugu autosorkuntzarekin, autoprodukzioarekin eta autokontsumoarekin. Oso azkar hazten den kooperatibaren parteetako bat da hori. Oso pozik gaude, hain zuzen ere, guk nahi duguna delako lan hori egin dezaketen pertsona gehiago edukitzea, horrela, autokontsumoa eta autoprodukzioa handitzen jarraitu ahal izateko. Hortaz, parte hori lotuta dago komunitate energetikoen inguruko hausnarketarekin eta horien bultzadarekin, gaurko goizean zehar zenbaitetan aipatuko direnak.

Hementxe ikusten dugu bilakaera:

- 200 kontratu/hilean. Som Energiaren kontratu guztien % 3,4 autokontsumokoak dira eta gainerakoak erosketetatik datoz.
- 46 erosketa kolektiboetatik, 26 2021ean egin ziren eta 1.800 daude martxan.

Horrek esan nahi du, autokontsumo-kontratuen eta erosketa kolektiboen artean, 19 GWh ditugula.

2021ean, *Autoprodukzio kolektiboko erosketa kolektiboen gida* egin zen eta, horrez gain, hasi da kontsumo partekatutako Herri Ikasgelaren ikastaroa garatzen.

Finantziazioari dagokionez, proba pilotu bat egin dugu Fiarerekin, erosketa kolektiboak finantzatzeko kooperatiba horren bidez; horrekin batera, dagoeneko hasi gara hitzarmenaren oinarriak ezartzen enpresa instalatzaileen sarearekin.

Komunitate energetikoei erreparatuz, 2021ean, ikusi dugu urte zaila izan dela horretan zentratzeko; hala ere, hausnarketa estrategiko bati ekin genion Tandemekin eta orduan hasi ginen Generalitateko Singulares programaren proiektuekin. Lehenbiziko bi proiektu pilotuak Katalunian dauden arren, horien emaitza beste gune batzuetan aplikatu ahalko da. Uste dugu printzipio ona dela, baita elkar-lankidetzaren adibide giltzarria ere, Pacok aipatzen zuen bezala, Gainera, badaude beste erronka batzuk, adibidez, K2Krekiko lankidetzaren eta Herri Ikasgela. Horrez gain, 2022rako aipatuko dugun beste gauza bat da intzidentziak jakinarazteko plana, 2021ean hedatu ez zena. Hala ere, hausnarketa abiarazi genuen eta espero dugu, 2022an, errealitate bihurtzea.

2021eko erronken artean, Altekiolekiko lankidetzaren aipa dezakegu, Pacok azaldutako diagnostikoa egiteko ezarritakoa. Behingoz, aukera izan dugu zuzenean elkartzeko tokiko taldeekin eta, batzar honetan barne-araubidearen aldaketak aurkeztu ezin baditugu ere, berregituraketa bat egin dugu eta gehitu nahi dugunaren inguruan hausnartu egin dugu. Lotuta dago Participa tresnarekin.

Ondorio gisa, aipatu behar da urte konplexua izan dela, bai barne-mailan, bai kanpo-mailan. Aldaketa asko egon dira. Zaila izan da linea berriak irekitzea, ordukoak finkatzen geundelako. Parte-hartzeari dagokionez, pandemiaren ajetik gentozen eta presentzialtasun gutxi egon da, gaur ikusten dugun bezala. Gainera, ikusi dugu jendeari birtualki biltzea ere gustatzen zaiola. Oinarriek eskatzen dutena ezagutzen dugu eta, gero, 2022aren inguruan hitz egiten dugunean, ikusiko dugu asmo hori dagoela eta ildo berri horiek ireki nahi ditugula, autoprodukzioa eta berezko sorkuntza handitzeko eta komunitate energetikoak sortzeko motorrak izateko.

12. Kapital sozialari egindako borondatezko ekarpenen urteko interes-tasa

Paco Jofrak bozkatu beharreko puntu hau azaltzen du:

Talde teknikoarekin eta Errektore Kontseiluarekin asko eztabaidatu ostean, kontuan hartuta bazkideen iritzia ere bai eta ikusita antzeko beste kooperatiba batzuek nola funtzionatzen duten, mantendu nahi dugu kapital sozial boluntarioari egindako ekarpenen % 1eko urteko interes-tasa, aktibismo-kontu bat delako. Hau da, guretzat ez da finantza-produktu bat, kooperatiba bazkide guztiekin kapitalizatze balio duelako.

Aurten, kapital sozial boluntarioko jaulkipenak izan ditugu: 15,7 milioi euroetara heldu gara, ia-ia 8.000 pertsonen partaidetzarekin. Hau da, pertsona bakoitzak 2.000 euro inguru jarri ditu. Ekarpen handiak dira; diru asko da eta ondo dakigu mundu guztiak ezin duela ekarpen hori egin. Izan ere, 7.900 pertsonek baino ez dute egin. Horrenbestez, ez dugu uste kooperatibaren finantza-produktua izan behar denik. Horregatik, proposatzen dugu interes-ehunekoa ez aldatzea.

13. Elektrizitate tarifak 2021-2022 Merkatu librea eta Generation kWh

Albert Clusellak informazioa emateko besterik ez den puntu hau azaltzen du:

2021ean zehar eta 2022ko lehenbiziko hilabeteetan, merkatu elektrikoaren gaia albistea izan da hedabide nagusietan eta nabarmendu beharreko hitza *konplexutasuna* da. Merkatu elektrikoaren tarifa elektrikoei dagokienez, oso urte konplexua izan da eta uste dugu interesgarria dela azaltzea merkatuan prezioak nola ezartzen diren, nola eragiten diguten kooperatiban, nola lantzen dugun gaia barne-mailan, nola finkatzen ditugun tarifak eta zer egin dezakegun horren inguruan.

Lehenbiziko diapositiba honek islatzen du OMIE merkatuan finkatzen den prezioa eskariaren eta eskaintzaren arteko elkargunea dela. Zenbat eta eskaria handiagoa izan, orduan eta gehiago igotzen da prezioa, azkenengo egunotan gertatu den bezala bero-olatuarekin eta aire girotuen erabileraren ondorioz. Grafikoa 2021eko urtarrilean hasi eta azkenengo egunotan amaitzen da. Lehen, prezioak albiste ez zirenean, elektrizitatearen merkatuan, ohikoa zen 40 eta 60 euro bitarteko prezioa egotea MWh bakoitzeko. Orain, ordea, 200 euro baino gehiagora heldu da MWh bakoitzeko. Lehenbiziko punta bat egon zen 2021eko urtarrilean, Filomena denboralearekin bat etorri zena, eta, une hartan, eskandalu bat izan zen. Gehiegizkoa zen, 40, 50 edo 60 euroko kopuruetara ohituta geundelako. Horrenbestez, eskandalu handia izan zen 95 euro behar izatea MWh bakoitzeko eta, geroztik, aldatuz joan da, gorabehera handiekin. Hori dela-eta, oso zaila izan da aurreikustea zein izango den hurrengo hilabeteetako prezioa.

Filomenatik aurrera, igoera egon da, prezioen punta zehatzekin. Adibidez, iazko abenduan, prezioa ia-ia 400 eurokoa zen MWh bakoitzeko, zehazki, 380 eurokoa. Errektore Kontseilutik, orduan, pentsatu genuen neurri zorrotzak hartu beharko genituela egoera denboran eustekotan. Baina prezio hori erori zen. Eta, orduan, Ukrainiako gerra hasi zen, 545 euroko batez bestekoarekin, baina 700 eurora heldu zen punta batekin. Eta ez genukeen inoiz puntu horretara iristea pentsatuko.

Irudi honetan, aurtengo konplexutasuna islatzen da, baita talde teknikoak pairatu dituen estresa eta lan-karga ere. Dakizuen bezala, Som Energian, tarifa finkoak ditugu, nahiz eta,

azkenengo urtean, zenbaitetan aldatu behar izan ziren. Tarifa finkoekin lan egin ahal izateko, energia aurretiaz erosten dugu eta, horrela, energiaren kostua aurreikus dezakegu hurrengo hilabeteetarako, horrela aurreikuspen ona izanik. Horrek ondo funtzionatu du 2021eko azkenengo hilabeteetan, energia asko erosi genuelako 2021eko laugarren hiruhilekorako, merkatuak ezarritako prezioen oso azpitik zeuden prezioekin, hain zuzen ere. Orain, ordea, merkatuaren prezioetik hurbilago dagoen prezio batean erosten ari gara. Hala ere, aurretiaz erosten dugu, prezioa berrikusi ahal izateko.

Faktura heltzen denean dugun tarifa, hau da, KWh bakoitzeko euroen kopurua ikusten dugunean heltzen den faktura parte desberdinen batuketak osatzen du. Pisurik handiena duena da energiaren kostua, baita berde koloreko lehenbiziko zutabea ere. Horrez gain, badaude lotutako kostuak: bonu soziala; sistema doitzearen kostuak, araututa daudenak eta ordaindu behar direnak; karguak eta bidesariak, araututa daudenak ere bai, eta, azkenik, komertzializazio-marjina dago, talde teknikoaren soldatak ordaintzea ahalbidetzen diguna eta aktibo egoteko aukera ematen diguna.

Energiaren prezioaren igoera hain handi hauek arte, lotutako kostuek (kargak, bidesariak...) alde handiak eragiten zituzten energiaren sakonuneen eta energiaren puntako uneen artean. Ikusi ahal izan dugu, energiaren prezioa igotzean, modu linealean ere igo egin direla tarifa guztiak, bai puntako tarifak, bai sakonuneetako tarifak. Horregatik, KWh bakoitzeko diru berbera izan arren, ez dugu lehen geneukan proportzio bera, zeinean ikusten genuen punta tarifa haran tarifaren hirukoitza zela.

2021ean zehar, lau aldiz eguneratu egin dugu tarifa baina, besteak gehitzen baditugu, guztira, tarifaren zazpi eguneraketa egin dira. Hori oso anomaloa da, lehen, prezio finkoa geneukalako beti urte osorako. Kasu batzuetan, sei hilabeteren buruan eguneratzen zen, baina hainbestetan eguneratu behar izatea ez da normala eta merkatu elektrikoaren egoeraren isla da.

Hau da familia baten batez besteko kontratua izango litzatekeenaren fakturako eraginaren bilakaera, 53 euro inguruko prezioa izango lukeena. Fakturan izandako eragina ikusten da, 101 euroko puntarekin; hala, zutabe laranjan, Espainiako Estatuak igoera hori eta bere efektua iraultzeko hartutako neurriak ikusten dira. Prezio teorikoa, BEZa eta beste zerga batzuk murriztu izan ez balituzte, 101 eurokoa izango zatekeen; aitzitik, aldatutako prezioa 87 eurokoa da. Lehen esan dugun bezala, hori ez da doakoa izan. Alde horiek direla-eta, kooperatibak dirua aurreratu behar izan du, aldeak konpentsatu ahal izateko, alegia.

Merkatuan egoteko, Som Energiak, aurreratutako erosketa horiekin, dirua jartzen du bermeetan, aktibo egoteko merkatuan, OMIEren bidez, hau da, merkatura kudeatzen duen antolakuntzaren bidez. Lehen, normala zen bermeetarako 1,3 milioi euro edukitzea eta orain, aldiz, 5 edo 6 milioi euro inguru ainguratu behar dira merkatuan mantendu ahal izateko. Aipatutako horrek guztiak eragin ditu batzarrean zehar aipatutako diru-zaintzaren tentsioak. Hala eta guztiz ere, kapital sozialaren borondatezko ekarpenari esker, udazkenean ireki zena orduko egoera konplexuagatik, horri aurre egin ahal izan diogu.

Uste dugu garrantzitsua dela batzar honetan aipatzea gasa doitzeko mekanismoa. Kasazio-prezioa ezartzen denean, gasa ez da agertzen. Orduan, kasazio-prezioa jaisten da, baina konpentsatu behar dira gasaren prezioaren eta kasazio-prezioaren arteko kostu-aldearekin eta horren arabera igo. Guk aurretiaz erosten dugu energia. Momentuz, prezioa finkatuta dago hurrengo hilabeteetarako. Hori gorabehera, albisteak entzun ditugu jada gasaren gaiaren inguruan, tenperaturen igoeragatik efektu txikiagoa duena. Baina bilakaera hori ikusten dugu.

Amaitzeko, azpimarratu behar da azaldu dugun guztia komertzializazioarekin lotuta zegoela, Generation kWh ereduaren ez daudenentzat. Generation kWh ereduaren parte hartzen dutenentzat, arauketa bat egin da eta bere aplikazioa 2023ko urtarrilerako aurreikusten da. Generation kWh ereduarentzako prezioa 36 eurotan ezarri zen MWh bakoitzeko, hau da, egungo prezioen oso azpitik. Hala, egiaztatu da horrek ez duela planten gastua estaltzen. Prezio erreala kalkulatu da eta ezarri da: 51 euro/MWh. 2023ko urtariletik aurrera, programan dauden pertsonen aplikatu egingo zaie. Orain arte, denon artean, alde hori ordaintzen genuen, Generationekoak izan edo ez. Baina, hemendik aurrera, soilik Generationen dauden pertsonen ordainduko dute.

14. Kapital sozialari egindako jaulkipenen berrespena

Ricard Jornetek bozkatu beharreko puntu hau azaltzen du:

2021eko Batzar Nagusiaren ostean, Errektore Kontseiluak erabaki zuen kapital sozialari zuzendutako borondatezko ekarpenen jaulkipen berri bat egitea.

Urrian, 15 milioi euroko jaulkipena egin zen eta, gero, kopuru hori handitu zen, zehazki, 25 milioi euroetaraino. Erabakiak ez-ohiko egoera batean hartu ziren, energiaren prezioak izugarri altu zeudenean; izan ere, horrek diru-zaintzaren tentsio handia sortu zuen kooperatiban. Premiaz hartu beharreko erabaki bat zen.

Errektore Kontseiluak onetsi zituen jaulkipen horiek, batzarrak ezarritako zuzentzauek xedatutakoari jarraiki. Hala ere, kooperatibaren estatutuek ezartzen dute Errektore Kontseiluak ez duela ahalmenik jaulkipen horiek egiteko batzarrak horiek berretsi gabe. Horregatik, gaur, puntu hau ekartzen dugu, bozkatua izan dadin: 2021eko urrian egin ziren kapital sozial boluntarioko jaulkipenak berrestea.

15. Estatutuen aldaketak

Jaume Josak bozkatu beharreko puntu hau azaltzen du:

Bozkatuko den puntu garrantzitsua da. Estatutuen aldaketak egiteko, bertaratutakoen botoen bi heren behar dira. Iaz, aurkeztutako proposamen guztietatik, bat besterik ez zen onartu, 46. artikulua aldaketarena, aukera ematen zuena Errektore Kontseiluak bilera birtualak egiteko. Gainerako guztiak ez ziren onetsi, bertaratutako askok ez zituztelako estatutu-aldaketen puntuak bozkatu, oso garrantzitsuak direnak. Hortaz, aurten, **zortzi galdera** aurkeztuko dizkizuegu: sei iaz aurkeztutakoaren errepikapenak dira eta bi 2022ko Batzar Nagusi honetara ekartzen ditugun gai berriak dira.

Maiatzaren 24an, Batzar Nagusia Prestatzeko Espazioa ospatu zen aldaketa horiek guztiak modu didaktikoan azaltzeko, artikulua asko aldatzen ari direlako; bilera horretan, aldaketak hiru bloketan multzokatu ziren. Webgune korporatiboarekin lotutako bloke bat; araudira eta lege berrietara egokitzeko aldaketekin lotutako bigarren bloke bat eta aldaketa garrantzitsuagoak jasotzen dituen hirugarren bloke bat.

Diapositiba honetan ikus dezakezue. Lehenbiziko galdera lehenengo blokearekin lotuta dago. Bigarren galdera bigarren blokearen ingurukoa da. Guztiak dira bigarren blokearen aldaketak. Azkenik, hirugarren galderatik zortzigarrenera bitarteko galderak lotuago daude aldaketa garrantzitsuagoekin eta, horretan, apur bat zehatzago sartuko gara.

Horrenbestez, eskatzen dugu gaur zerbait bozkatzera (adibidez, Errektore Kontseilua) sartzen diren pertsona guztiek estatutuen aldaketen zortzi galderak ere bozkatzeko.

3. puntuan, garrantzia handiko aldaketa bat dago jasota: Som Energiaren xede sozialaren aldaketa. Orain arte, xede soziala energia elektrikoaren produkziara eta komertzializaziora mugatzen zen. Irismen hori nabarmen handitzen ari gara, besteak beste, garapen, ingeniari eta mantentze jarduerak txertatzeko. Hori guztia egiten dugu komunitate energetikoak indartu ahal izateko.

4. galderan aipatutako estatutuen hurrengo aldaketaren helburua da ondasunen erkidegoak bazkide izan ahal izatea. Orain arte, Som Energiako bazkide izan zitezkeen gu bezalako pertsona fisikoak eta pertsona juridikoak ere bai (udal bat, enpresa bat, etab.). Orain proposatzen dugu hori aldatzea estatutuetan. Lehenbiziko aldaketa horrek "eta betekizunak betetzen dituzten beste batzuk" esaldia jasotzen du eta horrek esan nahi du ondasunen erkidegoak aukera izatea Som Energiako bazkide izateko. Gauzaren bat argi ez egotekotan, zalantzen eta galderen atalean argi dezakegu.

Garrantzia handiagoko aldaketa hauen bosgarren galderak jarduteko tarte handiagoa eman nahi dio Errektore Kontseiluari, kapital sozialerako ekarpen boluntarioak onartu ahal izateko.

Orain, Errektore Kontseiluak berak ezarri ahalko ditu ekarpen boluntarioak, betiere batzarrean onetsitakoaren esparruaren barruan badago. Hortaz, aldatu behar dira 36. eta 44. artikulua.

Horiek, oraindik ere, 2021eko batzarrean aurkeztutako galderak dira. Seigarren galderan aipatzen da barne-araubidearen arautegian aldaketak gehiengo sinplez onartzeko aukera eman beharko litzatekeela. Orain arte, barne-arautegiko aldaketa batzuek bi heren eskatzen zituzten; aitzitik, orain, ahalbidetuko da Kooperatiben Legeak ahalbidetzen dituen aldaketak gehiengo sinplearekin onartzea.

Azkenengo bi galderak, hau da, zazpigarren eta zortzigarren galderak 2022ko batzar honetan lehenengo aldiz aurkezen diren aldaketak dira.

Horietako bat 45. artikulua aldaketa da. Errektore Kontseiluaren barruan, asko eztabaidatu da horren inguruan; izan ere, iaz, berdinketa egon zen Errektore Kontseilurako bi hautagairen artean. Hortaz, erabaki genuen aztertu behar genuela nola ebatz genezakeen hori, automatikoki, berdinketak egotekotan, aurrera egin ahal izateko proposamenekin, hau da, araudi bat egotea estatutuetan erabakiak hartu ahal izateko. Bada, erabaki da 45. artikuluan aldaketak egitea, generoa irizpide bat izan dadin. Bi pertsonak berdintzekotan, Errektore Kontseiluan gutxien ordeztutako generoak erabakiko du, hau da, genero horretako pertsonak izango du lehentasuna. Baldintza hori nahikoa izango ez balitz erabakitzeke, bazkide gisa antzintasunik handiena duen pertsona hautatuko da. Oraindik ere, kooperatiben erregistroak behartzen gaitu haxe gehitzera: «Edozein arrazoiengatik, irizpide horiek nahikoa izango ez balira, bozketa errepikatuko litzateke batzar berean».

Zortzigarren galdera lotuta dago 13. artikulua aldaketa batekin, hain zuzen ere, prozedurarekin lotuta dagoena. Arindu nahi da bazkideen alden eta baje prozedura, Errektore Kontseiluak osoko bilkuran onetsi beharrean, eskuordeko batzorde batek onesteko, Errektore Kontseiluko bi pertsonak osatuko dutena. Horrela, eskuordeko batzordeak 15 egunean behin onetsi litzake bazkideen alden eta baje.

16. Errektore Kontseiluko karguak berritzea

Ricard Jornetek hitza hartzen du bozkatu behar den puntu hau azaltzeko:

2021eko urriaren 2an, Errektore Kontseiluak behin-behinean eta aho batez izendatu zuen Albert Clusella Vilaseca Errektore Kontseiluko kide. Izendapen hori egin zen Kooperatiben Legearen 56.2 artikulua aplikatuz eta Mario Andrés Lópezen ordezkari, zeinean agintaldia 2023ko maiatzaren 24ra arte hedatzen zen. Albert Clusellak adierazi zuen ez zeukala inolako bateraezintasunik edo debekurik Errektore Kontseiluko kide izateko. Hortaz, legearen prozedurekin bat eginez burutu zen prozesua eta bere izendapena Kooperatiben Erregistroan erregistratu egin zen. Hala eta guztiz ere, Kooperatiben Legearen arabera, batzarrak

baliozkotu behar du izendapen hori eta, horregatik, gaur puntu hori bozkatu behar dugu. Onetsiko ez balitz, beste bazkide bat izendatu beharko genuke.

Aukeratu beharreko Errektore Kontseiluko kide berriei dagokienez, zortzi hautagaitza jaso ditugu, baina bat deuseztatu da prozesuan zehar. Gogoratu bazkideekin bilera bat egin zela Batzar Nagusia Prestatzeko Espazioan, non aukera egon zen hautagaitzak ezagutzeko eta pertsonekin hitz egiteko. Eskertuta eta pozik gaude, azkenean, zazpi hautagaitza daudelako eta aniztasuna dagoelako. Kooperatibarentzat, genero-aniztasuna eta bestelako aniztasun batzuk ere oso garrantzitsuak dira. Oraindik ere lan asko daukagu egiteke eta bidea luzea izango da, baina aurreratzen ari gara, lan egiten ari gara eta aniztasunean zentratzen ari gara. Horregatik, biziki eskertu nahi dizkiegu hautagaitzak honako hauei: María Jesús Urruti Lebrero, Aina Barcelo Cuerda, Carolina Coll Marquès, Jaume Riera Codina, Montserrat Sagarra Fitó, Josep Torné Albi eta Andrés Vargas Beato. Partecipako bozketa-espazioan informazio gehiago eskura daiteke. Bertan, bere hautagaitzen bideoak ikusi ahalko dituzue eta bozketa-espazioaren betekizunen arabera bozkatu. Hiru bozka dira, Errektore Kontseiluan hiru daudelako bete gabe.

17. 2022ko Ekintza-planaren Aurkezpena

Sara Gutiérrezek informazioa emateko besterik ez den puntu hau azaltzen du.

2021eko ildotik jarraituz, ikusi dugu urte gogorra izan dela. Hortaz, 2022ko helburuetako bat da talde teknikoko pertsonen ongizatea sustatzea. Bestalde, barne-berrantolaketa egin nahi dugu, eraginkortasuna hobetzeko. Beste helburuetako bat da energia-eraldaketaren eta, oro har, eredu-aldaketaren parte garenon kopurua handitzea. Horretarako jaio ginen. Halaber, autonomia gehiago lortu nahi dugu merkatu elektrikoaren barruan. Ikusi dugu zer dakarren horrelako merkatu batekiko menpekotasuna edukitzeak eta, zalantzarik gabe, kooperatibaren plan estrategikoa garatu nahi dugu.

Talde teknikoko kideen ongizatea sustatzeko, pairatzen duten estresa murriztu behar dugu, banakako eredu bat eta taldeen eredu bat ezarri eta prestakuntza-plan bat garatu. Horrez gain, lan egiten hasi gara telelaneko eredu berria ezartzeko eta, horrekin batera, soldata-eredua berrikusi nahi dugu. Aipatu den bezala, barne-berrantolaketa bat burutzen ari gara, hurrengo urteetan jarraituko duena. Horren azken helburua da arinagoak izatea, baita moldagarriagoak, erresilienteagoak eta jasangarriagoak ere. Bazkideentzako adierazleak hobetu nahi ditugu eremu guztietan, arretari, kalitateari eta eraginkortasunari dagokienez. Egungoa bezalako une batean, nahitaezkoa da jauzi teknologikoa ematea eremu guztietan baina, bereziki, kooperatibaren jardura nagusiari dagokionean, hau da, komertzializazioan. Baita kudeaketa ekonomikoaren arloan ere; balantzean ikusiko zenuten bezala, milioi euroak mugitzen ditugu. Hortaz, hazkunde-une hauetan, berebizikoa da jauzi teknologikoa.

Som Energiaren eraldaketa energetikoko proiektuan parte hartzen duten pertsonen kopurua handitzeari dagokionez, gizartean eragina izatea da gure helburua. Horrenbestez, behar-beharrezkoa da, Estatu eskalan, eraldaketa-tresna gisa posizionatzea eta, hortaz, komunikazio-plan bat ere bada berebizikoa. Hori da, hain zuzen ere, aurtengo lehentasunetako bat. Komunitatea eraiki behar dugu eta herritarrek trebatu behar ditugu. Horrekin dago lotuta 2020-2021 aldian abian jarri dugun lan hori ere bai, Pacok aurkeztu duena parte-hartzearen diagnostikoaren inguruko puntuan, hau da, parte-hartzea handitzeari buruzko puntuan. Oso garrantzitsua da ez garelako merkaturatzaile tradizionala; parte-hartzean oinarritutako balio erantsia dugu eta, hortaz, hori areagotu behar da. Sortzen ari diren erronkei erantzuten dieten tresnak eta zerbitzuak behar ditugu. Hemen, berriro ere aipatu behar da komunikazioa; izan ere, komunikazioaren bidez, pertsona gehiagorengana heltzea ahalbidetuko diguten hedapen-tresnak lortu ahalko ditugu.

Aurrekoaz gain, oso garrantzitsua da Proyectos Singularesen programa, zenbaitetan aipatu dena. Programa hori komunitate energetikoak sustatzeko tresna teknologikoen ingurukoa da.

Azkenik, ezin ditugu tokiko taldeak eta bazkide aktiboak ahaztu, horiek direlako lurraldean eragina dutenak eta nukleoak direlako lurralde bakoitzean. Eta, ikusi dugun bezala, nukleo horiek autoprodukzioa eta komunitate energetikoak indartzen eta aldatzen dituzte. Komunitate energetikoak tokiko taldeetatik sortzen ari dira.

Som Energia gisa, paper bat daukagu eta, aurren, espero dugu zerbitzu horretan aurrera egitea; zehazki, gure lana da komunitate energetikoaren ikuspegia zein den definitzea, kolektibo gisa edo bizitza-unitate gisa, non, produkzioa ez ezik, beste baliabide askoren erabilera eta antolakuntza ere partekatzen diren. Horregatik, ez gara soilik ari energiaz, baizik eta mugikortasunaz, elikaduraz, etxebizitzaz eta zaintzez ere bai. Hori guztia egin behar da modu kooperatibo eta deszentralizatuan, burujabetza lortzeko eta eragin positiboa izateko lurraldean bizitzeko moduan. Som Energia gisa, gure ideia da komunitateen sorkuntza azkartzea. Tresna eskalagarriak sortu nahi ditugu, babesa emateko eta mantentze-lanarekin lotutako administrazio-oztopoak eta oztopo teknikoak gainditu ahal izateko. Zalantzarik gabe, Singularesen proiektu pilotua tresna bat da hasteko eta lor ditzakegun emaitzak ikusteko; izan ere, tresnak sortzean datza, komunitate energetikoen prozesuak kudeatzeko eta gida bat sortzeko.

Berezko sorkuntza, autokontsumoa eta komunitate energetikoen sorkuntza handitu behar ditugu eta elektrizitatearen salerosketa-kontratuen bidezko hornikuntza-bide berriak ireki behar ditugu, baita tarifa indexatua eta ordezkartza-zerbitzua handitu ere. Ekintza horiek guztia gauza berarekin daude lotuta: gure autonomia handitzea. Merkatu elektrikoaren barruko autonomia handitzea, energia gutxiago erosi behar izateko. Sorkuntza-estrategiaren barruan, ideia da, 2026rako, berezko plantekin lortutako sorkuntza % 20-30ekoa izatea. Horrek esan nahi du, 2022an, lehenbiziko planta bat egongo dela funtzionamenduan, bi 2023an eta horrela hurrenez hurren. Lau eta sei planta artean urtean, 2026ko amaierara arte heldu arte.

Autokontsumoari dagokionez, esan behar dago, helburuekin, motz geratu ginela; izan ere, gaur egun, baditugu 6.100 kontratu eta 29 GWh inguru. Hortaz, datu horiek are gehiago handituko ditugu. Oso albiste ona da; zenbat eta autoprodukzio gehiago lortu, hainbat eta energia gutxiago erosi beharko dugu kanpoan. Elektrizitatearen salerosketa-kontratuei dagokionez, hornikuntza-bide horiek handitu nahi ditugu. Proposamena da urteko 16.000 MWh-etara heltzea. Gauza bera gertatzen da tarifa indexatuarekin: kontsumo handiagoko kontratuekin hasi gara eta proposamena da kontratu horiekin jarraitzea eta etxeko kontratueta ere hedatu ahal izatea. Lehenbiziko urrats bat da malgutasunerako. Azkenean, ekintza horrek lagunduko du prezioaren hegakortasunarekiko menpekotasuna murrizten. Barne-mailako segurtasuna bermatzen dugu.

Eta, ordezkaritza-zerbitzuan, asmoa da ordeztzen ditugun MWh areagotzea. Zer esan nahi du horrek? Batetik, Som Energiaren bermeak murriztea ahalbidetzen digu. Energia elektrikoaren komertzializazioan, astero ordaintzen dugu, baina hilabete eta erdira kobratzen dugu. Ordezkaritza-zerbitzuarekin, efektua kontrakoa da. Bermeak gure alde daude; astero kobratzen da eta hilabete eta erdira kobratzen da. Hortaz, ideia izango litzateke kopuru honetara heltzea: 25.000 MWh/urtean. Kooperatibaren plan estrategikoa garatzeari dagokionez, aurren, esan dezakegu, 2021ean, jada hasi ginela plan estrategikoa egiten, zehazki, Tandem kooperatibaren laguntzarekin. Hauek dira hurrengo lau edo bost urteetarako lau ardatz estrategiko handiak: sorkuntza, autoprodukzioa, komunitate energetikoak eta eskariaren kudeaketa. Bestalde, hauek dira ardatz estrategiko horiek estaltzea ahalbidetuko diguten lau palankak: gobernantza; parte-hartzea; digitalizazioa eta presentzia. Presentzia esaten dugunean, esan nahi dugu Som Energia erronka honen parte dela.

Eta, amaitzeko, hazkunde-eredua definitu beharko dugu. Ikusi dugu, adibidez, oraindik ere merkatu elektrikoarekiko daukagun menpekotasun handiarekin, kontratuen kopurua haztea edo erosi beharreko energia handitzea ez dela beti onuragarria. Hortaz, berriro ere eztabaidatu beharko genuke ezarri nahi ditugun hazkunde-ereduen inguruan.

18. 2022ko Aurrekontuaren onespena

Jaume Josak bozkatu beharreko puntu hau azaltzen du.

Urtearen hasieran prestatu genuen 2022ko aurrekontua eta, orduan, aurrekontua eusten duten zenbait suposizio erabiltzen ziren (adibidez, 466 GWh merkaturatzea; komertzializazioaren % 7,7ko hazkundea eta kontratuak 139.000ra igotzea). Gaur, egoera desberdina da: zaila da 139.000 kontratueta heltzea. Orain, 125.900 dira; beraz, ia-ia 8.000 kontratu galdu ditugu. Errealitatea hauxe da: kontratu gutxiago ditugu eta ez dakigu nolakoa izango den argiaren prezioa murrizteko estrategia. Martxoan, 700 euro baino gehiagoko punta bat egon zen baina, oraindik ere, egoera oso ziurgabea da. Albertek lehen esan duen bezala, 2021. urtea itxi genuen ia-ia 80 milioirekin. *Targeta*, hau da, urtearen

hasieran 2022rako aurreikusitakoa 170 milioira heltzen zen, argia edo elektrizitatea prezio askoz garestiagoan erosten genuelako.

2022ko egitate garrantzitsu bezala, energiaren prezioen krisialdiak jarraitzen du, Ukrainiako gerrak larriagotu duena, baina beste arrazoi askorengatik ere jarraitzen duena. 2021ean, zentratu ginen ekarpen boluntarioak hobetzean eta kooperatibaren finantza-egituran; 2022an, aldiz, merkaturatutako KWh-en bolumena murrizten zentratu gara, horrek ere egoera errazten digulako eta arriskua murrizten digulako, energia gutxiago erosi behar delako.

2022ko lehenbiziko hiruhilekoan eta bigarren hiruhilekoaren parte batean, neurri zorrotzak hartu genituen merkatuaren prezioaren egoera horri aurre egiteko. Horietako bat izan zen kontratuak ixtea, beste egoera batzuetan inoiz hartu beharko ez genukeen neurria. Halaber, bazkiderik lotuta ez zuten 7.400 kontratu erregularizatu genituen, bazkide egiteko aukera emanez edo bazkide batekin lotzeko aukera emanez. Horrela, bazkideen kopurua asko igo zen, 4.000 bazkide berri baino gehiagorekin, baina 3.000 pertsonak baja eman zuten. Kontsumo handiko kontratuei eskatu zitzaizen gordailu bat ordaintzeko, kooperatiban genituen diru-zaintzako tentsioak arintze aldera. Kapital sozialaren jaulkipena handitu genuen; zehazki, iaz 25 milioitan zegoen eta, gaur, 15.700.000 eurotan. Helburua da 30 milioi eurora handitzea eta finantza-entitateekin diru-zaintzaren tentsioa murrizten lagunduko diguten zenbait produktu negoziatzen jarraitzea.

Esan bezala, ziurgabetasuna mantentzen da. Martxoan, 700 euroko puntara heldu zen, baina kontuan hartu behar dugu, argiaren prezioan, muga -500 eta 3.000 euro artean dagoela MWh bakoitzeko. Albertek lehen aurkeztutako grafikoan, ikusi dugu, bere produkzio elektrikoa eskaintzen zuten konpainiek, normalean, prezio altuagoan eskaintzen zutela. Inork ez die mugarik jartzen. Horri espekulazio esaten zaio, 1.500 jar dezaketelako, baina 1.800 edo 2.000 jar lezaketelako. Gaur egun, muga 3.000 eurokoa da, baina zaila da argiaren prezioa jaistea.

Orain, 2022rako itxiera-aurreikuspena da (eta orain hori garrantzitsuagoa da) ez garelako helduko urte hasieran aurrekontuan aurreikusitako 170 milioiko kopuru horretara, baina baliteke 140 edo 145 milioi inguruan geratzea. Marjinari dagokionez, kopuru guztiak handitzen dira, baita energiaren bolumena eta kudeatzen ari garen fakturazioaren bolumena ere. Hau da, oro har, bolumen altuagoak gara.

Hemen, aipamen berezia egiten zaio EBITDAri; izan ere, guk geuk kooperatibatik muga bat jarri diogu geure buruari eta, ezer egingo ez bagenu, asko gaintutuko genuke. Hemen ikusten da 6 milioi baino gehiagoko EBITDA. Murrizketa bat egin dugu tarifen prezioetan, baina elektrizitatearen prezioan dagoen ziurgabetasun handia dela-eta, EBITDA ere aldakortasuna izan dezakegu. Ez dugu 6 milioiko EBITDA batera heltzea. Hori baino lehen, ziur aski, tarifen prezioak murriztuko ditugu, behin edo behin baino gehiagotan.

Argiaren prezioaren ziurgabetasunak behartzen gaitu alerta egotera. Eta aipatutako EBITDA (zergak eta amortizazioak ordaindu aurreko irabaziak) mundu kapitalistako enpresek erabiltzen duten finantza-adierazle bat da. Guk geure buruari ezarri diogu, batzuetan geure

burua zigortuz, gardentasun goreneko ariketa batean, % 4ko muga. Jakin behar duzue mundu kapitalistako enpresek % 10eko edo gehiagoko EBITDA nahi dutela, inbertsioa erakarri nahi dutelako eta inbertsiogileentzat erakargarriak izan nahi direlako. Beraz, % 4ko EBITDA ez da batere interesgarria. Baina gure eredia ez da hori. EBITDAren datuak jartzen ditugu gardentasunagatik, baina ez gara EBITDAren arabera neurtzen. Neurgailu gisa erabiltzen ditugu pertsonen konfiantza eta ereduaren aldaketa erreala.

19. Errektore Kontseilua ahalduntzea hartutako erabakiak betearazi eta erregistratzeko

Jaume Josak bozkatu beharreko puntu hau azaltzen du:

Bozkatu beharreko puntu honetan, helburua da **Errektore Kontseilua gaitzea** idazketa-aldaketa formalak egiteko, hau da, ez kontzeptuak aldatzeko, ezta aldaketa nabarmenak egiteko ere. Idazketa-aldaketa horiek eska dakizkiguke Kooperatiben Erregistroan, 16. puntuan aurkeztu ditugun estatutuen aldaketak erregistratzera goazenean. Horrela, Errektore Kontseiluak aldaketa formalak onetsi ahalko ditu, urtebete itxaron beharrik gabe 2023ko Batzar Nagusirako. Mesedez, puntu hau ere bozkatu.

Orduan, **Albert Banalek** hartzen du hitza; jakinarazten du Errektore Kontseiluak prestatutako aurkezpenearen partea bukatzen dela hemen. Aurkezpenean gai-zerrendako puntu guztiak jaso dira, bozkatu beharrekoak zein informazioa emateko puntuak. Hemendik aurrera, zalantzak eta galderak helarazteko espazio bat dugu. Etxetik konektatu bazarete, telematikoki egin dezakezue eta Gironan zaudetenok zuzenean egin dezakezue.

20. Bazkideek planteatutako zalantzen galderak

Paco Jofra: Galdera bat baino, iruzkin bat da, autoprodukzio-soberakinen ingurukoa. Mozioa onartzen denean, aurrera eramango da. Badaude proposamen batzuk talde teknikoak egin dezakeenaren inguruan: adibidez, hileko konpentsazioa edo entitateko bazkideen arteko konpentsazioak. Espero dugu behin betiko zerbait edukitzea 2023an.

Albert Banal: Orain tarifen inguruko kontuetara pasako gara. Soberakinak konpentsatzeari buruzko lehenbiziko galdera bat dago. Ibilgailu elektrikoaren galderak oraintxe bertan aipatu den soberakinen konpentsazioari egiten dio erreferentzia. Esan dugun bezala, alternatibaren bat bilatuko dugu.

Ricard Jornet: Hurrengo galderak ibilgailu elektrikoak aipatzen ditu; izan ere, merkaturatzaile batzuek gauez prezio merkeagoak ematen dituzten estrategiak aurkezten dituzte. Lehen, hori zentzuduna zen. Dakizuen bezala, lehen, energiaren prezioa, gauez, oso merkea zen, baina orain ez da hain merkea. Som Energian, energia kostatzen zaigun prezioan saltzen dugu, oso marjina txikiarekin. Beraz, merkataritza-politika horietan sartzea, gauez kontsumo gehiago erakartzeko eta, gero, egunez gehiago kobratzeko, ez dator bat gure kooperatibaren merkataritza-ildoarekin. Adibidez, hitz egin dezakegu beste energia iturri berrietagarri batzuetan inbertitzeaz, energia merkeagoa emango digutenak gauez. Hala ere, egoera horretan egon arte, ez da ezer aldatuko.

Paco Jofra: Iruzkina bat bidali dute energia-eraginkortasunaren eta energia fotovoltaiakoaren produkzioaren inguruan. Agian ez gara zentratzen ari kontsumoaren murrizketan. Zentzu horretan, esan nahi dugu kooperatiba lerrokatuta dagoela kontsumoa murrizteko premiarekin, gaztelaniaz esaten den bezala «para no matar moscas a cañonazos» (aipua hitzez hitzekoa da).

Ricard Jornet: Hala eta guztiz ere, hurrengo batzarrerako, eska daiteke gehiago lan egiteko norabide horretan. Denok gaude ados, dagoeneko lantzen ari den gai honetan sakondu behar dela. Hala ere, etorkizunean kudeatzeko beste modu bat planteatu daiteke.

Jaume Josa: Fakturazioaren atzerapenaren inguruko galdera. Fakturazioaren atzerapena asko hobetu da, nahiz eta atzerapenak antzematen diren lurralde eta tokiko gune zehatz batzuetan. Banatzaileak irakurketa zuzenak bidaltzearen menpe gaude. Horretan ari gara lanean eta egoera hobetu da.

Sara Gutiérrez: BEZaren eta BEZarekin gertatu denaren inguruko galdera. Gustatuko litzaidake jakitea zuen ustez nahitasunen bat ote dagoen eta bestelako eragile kalteturik dagoen. Energia berrietagarrien munduan dauden tamaina bereko beste kooperatiba batzuei gertatu zaien bezala, BEZaren aldaketa horrek eragin digu. Izan ere, une hartan, ez genuen *confirming* lerrorik, enpresa handiek ez bezala. Izan ere, enpresa handiek lerro horiek zituzten BEZa aurreratzeko eta, beraz, eragin txikiagoa jasan zuten diru-zaintzan. Orain, aldiz, baditugu lerro horiek, etorkizunean beharrezkoa izango balitz, baina espero dugu beharrezkoa ez izatea.

Horrez gain, noski, BEZaren kontuek eta prezioen hegakortasunak eragiten digute, bai merkaturatzaile txikiok, bai beste eragile batzuei. Hori ez da soilik gertatu Espainian: 2021ean eta 2022an, merkaturatzaile askok egin dute porrot. Alemanian, 33k egin zuten porrot eta Ingalaterrako zifra zehatzik ez dudan arren, askok egin zuten porrot, baita handiren batek ere. Espainian, 2021ean, 22k egin zuten porrot eta, 2022an, 17k. Egoera ikaragarria eta triste da. Gainera, guri kalte egiten digun arren, merkaturatzaile eta kooperatiba gisa, jakin behar dugu kontsumitzaileak direla kaltetun handienak. Zaurgarriagoak dira, zerbitzu beragatik gehiago ordaintzen dutelako, energia-txirotasuna handitzen ari delako eta gero eta zailagoa delako energia-txirotasunaren atalase horretatik ateratzea. Hortaz, kaltetunak asko gara.

Albert Banal: Generation kWh ereduaren fiskalitatearen inguruko galdera. Dakizuen bezala, Generationen daudenek, orain, merkatuaren prezioaren azpitik dagoen prezioa dute eta horrek esan nahi du, merkatuko prezioari dagokionez, etekin bat dutela. Zergen ikuspegitik, etekin hori kapital-irabazitzat hartzen da eta zergapegarria da. Galdetzen digute kontsulta bat egin ahal diogun agentziari, ikusteko beti izan behar den horrela. Talde juridikoak eta finantza-taldeak zenbaitetan egin du kontsulta hori eta baieztatu digute hala dela: zergen % 19 hori ordaindu egin behar da.

Ricard Jornet: Galdera da aukerarik dagoen erreserbak erabiltzeko, horrela konpentsatu gabeko soberakina gehiago ordaintzeko. Erantzuna da soberakina ordaintzeko erabiltzen dugun balioa energia kostatzen zaigun bera dela. Hori bidezkoa eta gardenena da. Ez dugu nahi balio garestiagoa izatea. Guretzat, ez dauka zentzurik erreserbekin egitea. Uste dugu ez litzatekeela bide zuzena izango. Hala ere, proposamen horiek ezin dira mozioen bidez bideratu. Zentzu horretan, bazkide kritiko batzuek konpentsatu gabeko soberakinekin zer egin daitekeen planteatzen dute eta merkaturatzaile batzuek ideia berritzaileak dituzte, adibidez, bateriak. Baina gu hori konpentsatzen ari gara eta uste dugu zuzena dela. Aztertu behar duguna da zer egin daitekeen konpentsatu gabeko soberakinekin eta, horrela, bidezko konponbide bat aurkitu kooperatibarentzat eta bazkideentzat.

Albert Banal: Halaber, badago galdera bat kapital sozialaren interesa ordaintzearen inguruan. Pacok lehen azaldu dizkigu interesa % 1ean mantentzea proposatzeko arrazoiak. Ez ditugu arrazoi horiek errepikatuko. Besterik gabe, uste dugu ez dela finantza-tresna bat, baizik eta kooperatibaren osasunerako tresna bat. Baina kontuan hartzen dugun puntu bat da, zeinean bazkideen iritziak eta lehentasunak entzun behar ditugun. Inkesta bat abiaraziko dugu, bazkideek horren inguruan zer pentsatzen duten jakiteko. Zentzu horretan, puntu hau eguneratu egingo da batzar guztietan. Hauxe da Errektore Kontseiluak batzarrari aurkeztzen dion proposamena.

Participan badaude gai honen inguruko galdera batzuk, bertan erantzun direnak jada.

Albert Clusella: Tarifen inguruko beste galdera bat dago. Galdera da webgune desberdinetan agertzen diren tarifak fidagarriak ote diren eta Som Energiari aplikatzen zaizkion. Horri dagokionez, oso garrantzitsua da hauxe desberdintzea: normalean, Som Energian, kontratu batzuk prezio finkoan ditugu, zehazki, 2.0TD tarifarekin. Horrek ordutegi finkoak ezartzen ditu, bai Som Energiarentzat, bai beste merkaturatzaile batzuentzat. Tarifek ezartzen dituzten ordutegi horiek webgunean argitaratzen dira eta berberak dira merkaturatzaile guztientzat. Beraz, ziur aski, berberak izango dira. Edonola ere, garrantzitsua da informazio hori zuzenean hartzea gure webgunetik. Beste kontratu-mota bat dago: tarifa indexatua. Som Energian, oso kontratu gutxi ditugu tarifa indexatuarekin. Batez ere, enpresentzako dira. Tarifa indexatu horrek esan nahi du energiaren prezioa orduro aldatzen dela; hortaz, iturri ofizialak bilatu behar dira, tarifa indexatuaren prezioa ikusteko orduz ordu. Baina berriro ere esango dut bazkide gehienok tarifa finkoa dugula eta hiru une-mota ditugula soilik: energiaren puntako unea, energiaren une arrunta eta energiaren sakonunea. Hori guztia agertzen da gure webguneko irudi batean.

Paco Jofra: Beste galdera bat dago konpentsatu gabeko autokontsumo-instalazio baten soberakinari buruz: Nork baliatzen du konpentsatu gabeko soberakina? Nork jasotzen du? Som Energiak jasotzen du, hau da, merkaturatzaileak eta ez banatzaileak.

Albert Clusella: Galdetzen digute berriki onartu den “salbuespen iberiarrak” gure energia-sistemetan soberan dagoen energiaren prezioa murriztea dakarren. Gure tarifek prezio finkoa dute, bai energia kostatzen zaigunagatik, bai energia konpentsatzen dugunagatik. Eta, “salbuespen iberiar” horrek kooperatibaren erosketa-prezioetan eragin ahala, tarifetan islatu ahalko dugu, bai KWh bakoitzeko kostu-prezioetan, bai KWh bakoitzeko konpentsazio-prezioan. Berrero ere azpimarratuko dut Som Energiaren politika dela KWh bakoitza konpentsatzea kostatzen zaigun prezio berean. Hau da, batez beste 200 euro ordaintzen baditugu MWh bakoitzeko, soberakinak prezio berean ordaintzen ditugu.

Jaume Josa: Aplikazioaren lehenbiziko egunek arrakasta erlatiboa erakutsi dute. Zentzu horretan, agian “salbuespen iberiar” horrek ez du funtzionatzen energia hidroelektrikoak horretaz aprobetxatzen direlako, prezio astronomikoak eskainiz; gasa azpitik geratu da. Ziurgabetasuna mantentzen da.

Sara Gutiérrez: Ordaingabeen zifraren inguruko galderari dagokionez, 700.000 euro dira. Kontratuen ia-ia % 2,3. laz esan genuen jada berrikusi behar zela 24/2015 Legea, baita zaurgarritasun-egoeran eta energia-txirotasuneko egoeran dauden pertsonak tratatzeko protokoloa ere. Protokoloan zehatz-mehatz sartu gabe, esan dezakedana da talde teknikoko kide askok kudeatzen dituztela ordaingabe horiek eta dei asko egiten dituztela, oso arreta pertsonalizatua eskainiz. Asmoa da egoera honetan dauden pertsonak zaintzea. Badakizue, guretzat, pertsonak ez direla bezeroak, baizik eta bazkideak; hortaz, ahalik eta arretarik handienarekin jarduten saiatzen gara.

Albert Banalek jakinarazten du ez dagoela galdera gehiagorik. Hortaz, galderei erantzuteko parte hau ixten dugu. Gogoratu 13:15 arte bozka daitekeela.

21. Errektore Kontseiluko kideen agurrak

Albert Banalek Francesc Pujolen eragina eskertzen du, Errektore Kontseilura aurkeztera animatu zuena. Adierazi du, kargua hartu aurretik, ez zuela kooperatibaren beste espazio batzuetan parte hartu eta horrek eragin ziola kargua egikaritzean. Horrez gain, adierazi du kargura heldu zela atzerrian egonaldi bat egin ostean eta horrek ere eragin ziola. Adierazten du oso lau urte gogorrak izan direla eta, urtero egindako esfortzua gorabehera, hurrengo urtea beti zela are zailagoa, bereziki azkenengo urtea. Esfortzu horrek bere bizitzaren beste esfera batzuetan eragin du; hortaz, eskerrak ematen dizkio bere familiari, parte hartzen uzteagatik, bere konpromisoak eta Som Energiari eskainitako dedikazioak izandako ondorioak pairatu dituen arren.

Edonola ere, uste du balantzea positiboa dela eta kooperatibaren Errektore Kontseiluan igarotako lau urteek betirako aldatu dutela, zentzu askotan. Talde teknikoarekin batera lan egiteak asko irakatsi dio, ikuspegi teknikitik ez ezik, kooperatibarekiko duten konpromisoari eta balioei dagokienez ere, horiek direlako kooperatiba paregabea izatea eragiten dutenak. Izan ere, kooperatibaren aktiborik handienetariko bat da jendeak horrengan jartzen duen konfiantza.

Horrez gain, nabarmentzen du ordu asko partekatu dituela egungo Errektore Kontseiluarekin, baita orain arte horretako kide izan diren pertsonekin ere. Beti ez dira ados egon, baina beti heldu dira adostasunera eta, batzuetan oso desberdinak izan diren ikuspegietatik, gai izan dira elkar ulertzeko eta konponbide batera heltzeko.

Azkenik, eskerrak ematen ditu aukera izan duelako aktiboki parte hartzeko hain eraldatzaile den proiektu honetan; jarraitzeko moduko eredu bat da, baita funtzionatzen duen proiektu bat ere. Hala, horrek erakusten du pertsonak gauzak egin ditzaketela, baita elektrizitatearena bezalako hain merkatu ikaragarri batean ere. Zaintzen badugu, proiektuak oso bide luzea izango du; eragin handia izango du eta, zalantzarik gabe, beste pertsona askoren bizitza ere aldatuko du.

Irene Machucak eskertzen ditu lau urte bizi hauek, zeinetan asko ikasi duen eta hazkunde pertsonala izan duen, nahiz eta batzuetan desazkundea ere egon den. Marc Rosellóri eskertzen dio 2013an emandako laguntza, hain zuzen ere, kooperatiba ezagutu zuenean. Sevillako tokiko taldearekiko konpromisoak eramanean zuen Errektore Kontseilura aurkeztera 2018an. Urte bakoitza errusiar mendi baten modukoa izan da, sentsazio eta zirrara pilo bizi izan ditugulako, lan handia egin dugulako eta egoera askori egin behar izan diegulako aurre. Bidea askoz errazagoa izan da Som Energiako talde handiari esker eta, batez ere, azkenengo lau urteak Errektore Kontseiluan partekatu ditudan pertsona horiei esker, ohorea izan baita niretzat haiekin lan egitea.

Azkenengo lau urteotan bizi izandako aldaketa guztiak gogorarazten ditu: barne-antolakuntzaren berregituraketa; gerentzia-eredu berria; araudi-aldaketak; pandemia; susmatu ezin genitzakeen merkatu elektrikoaren prezioaren igoerak; Herri Ikasgelaren sorkuntza eta komunitate energetikoen iraultza.

Errektore Kontseiluko kide guztiei ematen dizkie eskerrak, horiekin partekatu baitu denbora azkenengo lau urte hauetan. Nabarmentzen du asko ikasi duela eta bere ekarpena egin duela, kooperatibak tresna bat izaten jarraitzeko, herritarrei aukera emateko trantsizio energetikoan parte hartzeko. Zehazki, trantsizio energetikoa, berriztagarria izateaz gain, bidezkoa, demokratikoa eta, batez ere, feminista izan behar da. Eta beharrezko mekanismoak ezarri behar ditugu hala izan dadin.

Hitza hartzen du **Sara Gutiérrezek**; bere kargua ez da aurten amaitzen, baina Errektore Kontseiluko kide izateari uko egiteko aukera aztertzen ari da. Batzar Nagusiaren ospakizuna baliatzen du Som Energiaren Errektore Kontseiluan egindako ibilbidea eskertzeko.

Nabarmentzen du garrantzitsua dela espazioak sortzea zirrarak adierazi ahal izateko; hori ezin da eremu guztietan egin baina, Som Energian, posible da.

Adierazten du bere asmoa dela beste leku batetik jarraitzea proiektuarekin. Proiektuari dagokionez, hitz hauek nabarmentzen ditu: *esker-ona, konstantzia, taldea eta malgutasuna*. Halaber, pisua eman nahi dio *zaurgarritasun* hitzari; hain zuzen ere, zaurgarritasunaren bidez, indartsuago bihurtzen gara, haz gaitezke, kalitatea hobetzen dugu eta erakutsi dezakegu erresilienteagoak garela, kooperatibarentzat hain gogorak izan diren azkenengo bi urte hauetan bezalaxe. Krisialdiek beti balio dute ideia berritzaileak eraikitzeko.

Arrazoi pertsonalengatik ukatzea planteatzen ari da, Errektore Kontseiluan parte hartzea zailtzen diotelako. Hala ere, adierazten du pozik eta lasai dagoela, ikusten duelako aurten jende asko aurkeztu dela, batez ere, ikusten dituelako emakume asko eta aniztasun handia. Bira feminista hori eman behar da parte guztietan. Hortaz, Som Energiarekin egiten duguna funtsezkoa da. Gauzak egiteko modu berriak sustatu nahi ditugu, betiere ekofeminismotik.

Talde teknikoari eskertzen dio bere lana eta tokiko taldeei bere presentzia. Eta, azkenik, eskerrak ematen dizkie Errektore Kontseiluko emakumezko kideei.

Azkenik, **Ricard Jornetek** eskerrak ematen dizkie Errektore Kontseiluko agintaldia amaitzen duten pertsonari, adieraziz erreferente zoragarria izan direla beranduago heldu direnentzat.

22. Bozketen emaitza:

	Galdera	Aldekoak	Aurkakoak	Abstentzioak	
	Onartzen al dituzu 2021eko urteko kontuak?	414	5	14	Onetsita
	Onartzen al duzu 2021eko soberakin kooperatiboa aplikatzea?	426	6	6	Onetsita
	[MOZIOA] Onartzen al duzu kooperatibak prestakuntza- eta entzute-lana burutzea eta proposamena bat egitea konpentsatu gabeko autokontsumo-soberakina k konpentsatzeko eta	420	4	13	Onetsita

	Galdera	Aldekoak	Aurkakoak	Abstentzioak	
	kudeatzeko , hori 2023tik aurrera aplikatu ahal izateko?				
	[MOZIOA] Onartzen al duzu kooperatibak aukera aztertzea tarifa soziala eskaintzeko betekizun zehatz batzuk betetzen dituzten edo zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonentzat?	370	42	32	Onetsita
	[MOZIOA] Onartzen al duzu kooperatibak kanpo-sarean partekatutako autoprodukzioa lehenestea, denbora, pertsona eta baliabide gehiago bideratuz horren epe labur eta ertainerako garapenerako, suertatzen diren abaguneak baliatzeko?	378	17	38	Onetsita
	[GTT] Onartzen al duzu Som Energian hizkuntza-aniztasuna kudeatzeko proposatutako esparru-dokumentua?	353	22	54	Onetsita
	Onartzen al duzu kapital sozialean urteko interesa aplikatzeko proposamena?	350	63	27	Onetsita
	Onartzen al duzu Errektore Kontseiluak azkenengo ohiko Batzar Nagusitik onartutako kapital sozial boluntarioko jaulkipenak berrestea ?	397	16	22	Onetsita
	ESTATUTUEN ALDAKETAK				

	Galdera	Aldekoak	Aurkakoak	Abstentzioak	
	Onartzen al dituzu web korporatiboaren garapenari buruzko estatutu-aldaketak (4., 10., 38., 55. artikulua eta 4a xedapen gehigarria)?	387	8	18	Onetsita
	Onartzen al dituzu araudira egokitzeari buruzko estatutu-aldaketak (19., 29. eta 32. artikulua)?	387	3	23	Onetsita
	Onartzen al dituzu objektu sozialari buruzko estatutu-aldaketak (2. artikulua)?	389	1	23	Onetsita
	Onartzen al dituzu ondasun-erkidegoak bazkide gisa onartzearekin lotutako estatutu-aldaketak (5. artikulua)?	375	10	28	Onetsita
	Onartzen al dituzu Errektore Kontseiluak borondatezko ekarpenen edo borondatezko finantzaketaren onarpen-akordioen inguruko eskumenei buruzko estatutu-aldaketak (23., 36. eta 44. artikulua)?	372	16	25	Onetsita
	Onartzen al dituzu barne-araudia gehiengo soilaren bidez onartzeari buruzko estatutu-aldaketak (40. artikulua)?	363	16	34	Onetsita
	Onartzen al dituzu Errektore Kontseiluko kideak berritzeari buruzko estatutu-aldaketak (45.	390	8	15	Onetsita

	Galdera	Aldekoak	Aurkakoak	Abstentzioak	
	artikulua)?				
	Onartzen al dituzu Eskuordeko Komisio baten bidez bazkideen alta- eta baja-prozedurak sinplifikatzeari buruzko estatutu-aldaketak (13. artikulua)?	394	6	13	Onetsita
	Onartzen al duzu Albert Clusella Vilasecaren berrespena Errektore Kontseiluko kide gisa?	360	10	47	Onetsita
		Botoak			
	María Jesús Arruti Lebrero	210			
	Aina Barcelo Cuerda	268			
	Carolina Coll Marquès	255			
	Jaume Riera Codina	118			
	Montserrat Sagarra Fitó	142			
	Josep Torné i Albi	81			
	Andrés Vargas Beato	53			
	Onartzen al duzu 2022ko aurrekontua?	389	10	15	Onetsita
	Errektore Kontseilua ahalduntzea hartutako erabakiak betearazi eta erregistratzeko	406	3	9	Onetsita

	Galdera	Aldekoak	Aurkakoak	Abstentzioak	

Kontuan hartuta bertaratutako pertsonak ez dutela iruzkin, iradokizun edo zalantza gehiagorik, presidenteak amaitutzat ematen du batzarra 14:00etan eta nik, Borja Barredok, berariaz jasotzen dut bertaratutako pertsona guztien nortasuna egiaztatu dudala. Era berean, adierazten dut Ohiko Batzar Nagusian egon diren bazkide guztiek aukera izan dutela parte hartzeko eskubidea gauzatzeko, ahoz zein idatziz.

Sinadurak:

Batzar Nagusiko presidentea

Batzar Nagusiko idazkaria

Aktaren edukia irakurrita, kontu-hartzaile naizen aldetik, sinatzen dut eta onartzen dut dagozkion ondorioetarako:

Aktaren kontu-hartzaileen sinadurak.

Salomé López Ramos

Josep Frigola Rosó

1. ERANSKINA Batzar Nagusian parte hartu duten bazkideen zerrenda (izen-abizenak eta bazkide-zenbakia).